

**DONOSTIAKO UDALEKO
HORNIDURA ETA SANEAMENDUARI
BURUZKO
ERREGELAMENDUA**

2017ko abuztua

DONOSTIAKO UDALEKO HORNIDURA ETA SANEAMENDUARI BURUZKO ERREGELAMENDUA

AURKIBIDEA:

- I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK**
- II. KAPITULUA URA ETA SANEAMENDUA UDAL ZERBITZUAREN ETA ABONATUEN
BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK**
- III. KAPITULUA HORNIDURA ETA SANEAMENDU SAREAK**
- IV. KAPITULUA INSTALAZIO PARTIKULARRAK**
- V. KAPITULUA HORNIDURA**
- VI. KAPITULUA SANEAMENDUA**
- VII. KAPITULUA KONTSUMOAREN KONTROLA**
- VIII. KAPITULUA UR HORNIDURAREN BALDINTZAK**
- IX. KAPITULUA HORNIDURA EMATEA ETA KONTRATATZEA**
- X. KAPITULUA ERREGULARTASUNA HORNIDURAN**
- XI. KAPITULUA IRAKURKETAK, KONTSUMOAK ETA FAKTURAZIOAK**
- XII. KAPITULUA ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**
- XIII. KAPITULUA TARIFAK EZARTZEKO SISTEMA
XEDAPEN IRAGANKORRAK
XEDAPEN INDARGABETZAILEA
AZKEN XEDAPENA**

ERANSKINAK:

HORNIDURA ETA SANEAMENDU SAREAK. IRIZPIDEAK eta FITXA TEKNIKOAK

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.- **XEDEA**

Honako hau da Erregelamendu honen xedea: Donostiako Udalaren eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzura abonatuakotako pertsonen arteko harremanak arautzea, eta bi aldeetako bakoitzak dituen eskubideak eta betebeharrak adieraztea.

Donostiako Udala toki erakunde bat den aldetik, bere udal mugartean hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea du bere helburuetako bat, estatuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan unean-unean indarrean dagoen legediarekin bat etorrita.

Udalak zerbitzu horiek zuzenean kudeatzen ditu, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren bidez.

Erregelamendu hau orohar aplikatuko zaie Udalak bere eskumenen esparruan ematen dituen hornidura eta saneamendu zerbitzuei.

2. artikulua.- **ARAU OROKORRAK**

Edateko uraren etxeetako hornidurak Erregelamendu honek xedatutako oro beteko du, bai eta Udaleko araudi teknikoak eta unean-unean indarrean dauden gainerako arau eta legeak ere.

3. artikulua.- **ESKUMENAK**

Ur hornidura ematea, edozein dela modalitatea, eta hondakin urak ateratzea eta tratatzea Udalaren eskumen eksklusiboa da, eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak kontratatuko ditu zerbitzu horiek; horretarako, kasuan kasuko hornidura kontratua formalizatuko da, eta kontratu horretan arautuko dira bete beharreko baldintzak.

4. artikulua.- **ABONATUAK**

Erregelamendu honi dagokionez, edateko uraren hornidura kontratatuta duen eta finkaren, lokalaren edo industriaren erabilera eskubidearen titularra edo haren ordezkaria hartuko da abonatuakotzat.

5. artikulua.- **ERAKUNDE HORNITZAILEA**

Erregelamendu honetan, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua hartuko da erakunde hornitzailetzat.

6. artikulua.- **ESTALDURA EREMUA**

Erregelamendu hau orohar aplikatuko zaie Udalak bere eskumenen esparruan ematen dituen hornidura eta saneamendu zerbitzuei.

Oro har, Udalarenak ez diren lurralde eremuetan ez dira emariak hornituko, eta ez dira isurkiak ez aterako ez araztuko.

Nolanahi ere, salbuespen gisa eta kasuz kasu egoerak kontuan hartuta, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak emariak hornitu, isurkiak atera eta urak araztu ahal izango ditu, baldin eta horrek ez badu eragiten udal zerbitzuekiko arretarik eza edo kalterik.

Udalaren esparrutik kanpo egindako zerbitzuak modu prekarioan emandakotzat hartuko dira, eta, beraz, eten ahal izango dira erabiltzailearentzako inolako eskubiderik gabe, baldin eta zerbitzu hori ematen jarraitzeak udal zerbitzuari kaltea badakarkio.

7. artikulua.- **KONTRATUA**

Erregelamendu honetan honako hau hartzen da kontratatuz: Udalak eta zerbitzuaren erabiltzaileek Erregelamendu honetan xedatutako baldintzak errespetatu eta beteko dituztela adierazten duen akordioa. Udalak egoki irizten dionean prestatuko dituen dokumentu, kudeaketa edo izapideen bidez formalizatuko da akordio hori, eta hura gauzatzeko baliatuko dira.

II. KAPITULUA

URA ETA SANEAMENDUA UDAL ZERBITZUAREN ETA ABONATUEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

8. artikulua.- URA ETA SANEAMENDUA UDAL ZERBITZUAREN BETEBEHARRAK

Erregelamendu honetan arauketa bereziko egoerak direla-eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari eragin dakizkiokeen betebeharrak espezifikoez gain, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak, oro har, betebeharrak hauek ditu:

Orokorra: Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua behartuta dago, eskura dituen baliabideekin eta bere eskumen eremuan, abonatuaren harguneetan edateko ura jartzera eta banatzera, Erregelamendu honetan xedatutako baldintzen eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenen arabera.

Hornitzeko betebeharrak: Aurreko 6. artikuluan zehaztutako estaldura eremuan, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua behartuta dago ur hornidura eskatzen duen orori ura hornitzera, bai eta hornidura handitzera ere hala egitea eskatzen duen abonatu orori, Erregelamendu honetan xedatutako eta indarrean dauden erregelamenduzko arauetan jasotako baldintza teknikoaren eta ekonomikoaren arabera.

Aurreko paragrafoan adierazitako zerbitzuak emateko betebeharrak azpiegiturak eta instalazioak egiteko eta garatzeko Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren inbertsioko planetan zehazten diren epeen baldintzapean eta baitan egongo da.

Uraren edangarritasuna: Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua behartuta dago uraren edangarritasuna ziurtatzeko, indarrean dauden osasun xedapenen arabera, pasoko giltzara arte (eraikinaren barruko instalazio orokorraren hasiera), baldin eta hornidura ez bazaio beste toki erakunde bati egiten.

Instalazioen kontserbazioa: Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua behartuta dago hornidurarako eta saneamendurako beharrezkoak diren sareak eta instalazioak bere kargura mantendu eta kontserbatzera, bai eta erregistro giltzarainoko hornidura harguneak mantendu eta kontserbatzera ere.

Erregularitasuna zerbitzuak ematean: Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua behartuta dago ura erregularitatez hornitzera.

Nolanahi ere, ezin izango zaizkio leporatu Erregelamendu honetan zehaztutako egoeretako zerbitzu etenaldiak.

Mezu urgenteak: Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua behartuta dago mezuak edo oharrak jasotzeko etengabeko zerbitzua edukitzera, abonatuak edozein ordutan matxuren berri eman dezaten edo larrialdiko egoeretan informazioa jaso dezaten.

Erreklamazioak: Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua behartuta dago idatziz egiten dizkieten erreklamazioak hogeita hamar eguneko epean erantzutera.

Tasak: Udala behartuta dago kasuan kasuko zerga ordenantzan unean-unean onartutako tarifak aplikatzera ezarrita duen hornidura mota bakoitzari.

9. artikulua.- **URA ETA SANEAMENDUA UDAL ZERBITZUAREN ESKUBIDEAK**

Egoera espezifiko batzuk direla-eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak izan ditzakeen eskubideak ere aintzat hartuta, hauek dira, oro har, dituen eskubideak:

Instalazio partikularrak ikuskatzea: Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak eskubidea du, indarrean dagoen legediak administrazioko organoei ematen dizkieten eskumenak ere kontuan hartuta, ur hornidurako edo saneamenduko barruko instalazioak (zerbitzuan daudenak, edo erabiltzen ari direnak edo egon daitezkeenak) ikuskatzeko, aztertze eta haietan esku hartzeko, betiere Erregelamendu honetan adierazitako mugak errespetatzen direla.

Fakturaturakoa kobratzea: Udalak eskubidea du araudiaren arabera abonatuari egindako fakturazioen edo karguen zenbatekoa entitate laguntzaileetan jasotzeko.

10. artikulua.- **ABONATUAREN BETEBEHARRAK**

Erregelamendu honetan arauketa bereziko egoerak direla-eta abonatuari eragin dakizkiokeen betebeharrak espezifikoek gain, abonatuak, oro har, betebeharrak hauek ditu:

Ordainagiriak eta fakturak ordaintzea: Abonatu oro behartuta dago, jasotzen dituen zerbitzuen ordainetan, Udalak unean-unean onartuta dituen tasen arabera egiten dizkion karguak ordaintzera, bai eta zerga alorreko kasuan kasuko zerga ordenantzan arautzen diren zerbitzu espezifikoek eragindako gainerakoak ordaintzera ere.

Uraren kontsumoari dagokionez, ordaintzeko betebeharrak jarriko, matxurek edo barruko instalazioen eraikuntzako edo kontserbazioko akatsek eragindako kontsumoari ere aplikatuko zaio.

Fidantzak ordaintzea: Horniduran alta ematea eskatzen duen pertsona oro dago behartuta kasuan kasuko fidantza ordaintzera, Erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera.

Instalazioak kontserbatzea: Unean-unean indarrean dauden arauak eta legeak gai honi buruz xedatutakoa ere aintzat hartuta, abonatu orok behar bezala erabili behar ditu ur hornidurarako dituen instalazioak, behar beste neurri hartu behar ditu ahalik eta ondoen kontserbatzeko haiek, eragotzi egin behar du kutsagarriak izan daitezkeen urak sarera itzultzea, eta, horrez gain, harguneko instalazioak eta kontagailua ez direla manipulatu ziurtatzen duten zigiluak ez ditu ukitu behar eta kontagailua egoera onean eduki behar du datuak irakurri ahal izateko. Gainera, saneamenduko bere instalazioak behar bezala erabili behar ditu, isurketak erabileraren arabera bereizi eta instalazioak behar bezala funtzionatzea galaraz dezaketen isurketak edo osasunean eta ingurumenean kalteak eragin ditzaketen isurketak eragotzi behar ditu.

Instalazioetarako eta ikusketak egiteko erraztasunak jartzea: Horniduraren bat eskatzen duen pertsona oro behartuta dago hornituko den jabetzan beharrezkoak diren elementuak jartzeko lanak erraztera Ura eta Saneamendua Zerbitzuari, bai eta erakunde horrek baimendutako langileei ere, hala direla egiazten dutenei, sartzen uztera ere, hornidurarekin zerikusia duten behar beste egiaztapen egin ahal ditzaten.

Horrez gain, behartuta dago kontagailuak edo neurgailuak ordeztzeko, aztertze edo aldatzeko lanak egiten uztera Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari, ohiko mantentze eta kontserbazio lanen barruan, hala egitea aurreikusten badu.

Behartuta dago, halaber, kasuan-kasuan behar diren neurgailuak eta elementu osagarriak instalatzeko beharrezkoak diren lokalak, esparru itxiak edo kutxatilak erabiltzen uztera.

Hirugarrenei ez desbideratzea: Abonatuak ezingo dio inola ere beste bati utzi ura, ez doan ez kostu bidez, ez aldi baterako ezta betiko ere; gisa horretako iruzur bat gertatuz gero, bera izango da erantzulea, bere izenean edo haren mendeko beste norbaiten izenean.

Matxuren berri ematea: Abonatua behartuta dago, bai bere onerako bai denen onerako, hornidura sare orokorrean ikusten duen edo bere ustez gerta daitekeen matxura edo arazo ororen berri ematera Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari.

Horniduren erabilerak eta hedadura: Abonatua behartuta dago hornitzen zaion ura kontratuan jartzen duen moduan eta erabilerarako erabiltzera ura.

Horrez gain, behartuta dago Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari kasuan kasuko baimena eskatzera instalazioetan aldaketa oro egin ahal izateko, aldaketa horiek kontratatutako hornidura emariak aldatzea badakar, edo hargailuen kopurua aldatu ahal izateko edo lekuz aldatu ahal izateko.

Beharrezkoa baldin bada neurgailu bat aldatzea, arrazoi hori dela bide, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak baimena du hura aldatzeko, eta ez du zertan beste baldintzarik bete behar.

Baja jakinaraztea: Horniduran baja eman nahi duen abonatuak idatziz eman behar dio horren berri Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari, eta berariaz adierazi behar dio noiz utzi hornitzeari.

Egoera hauetan bakarrik eman daiteke baja horniduran: hornitzen den eraikina fisikoki eraisten denean, eraikinaren jabetzaren titulartasuna aldatzen denean eta legeak hala egitea agintzen duenean.

Titularra aldatzen bada edo kontratua subrogatzen bada, aldaketa zer egunetan egin den jakinarazteaz gain, egun horretako kontagailuaren irakurketaren berri ere eman behar da.

Emariak berreskuratzea: Abonatuak bere instalazioetan igerilekuak, hozteko ekipoak edo hozteko instalazioak baditu eta haietan energia termikoa garraiatzeko ura erabiltzen bada, instalazio horietan birziklatzeko ekipoak jarri behar ditu, Barneko Instalakuntzetarako Oinarrizko Araudian agindutakoaren arabera.

Instalazioak bereiztea: Finka berean banaketa publikoko urarekin batera beste jatorri bateko ura badago, abonatuak behartuta dago ura ibiliko edo bilduko duen barruko instalazio edo sare bereziak jartzera, bi sareetako ura nahasteko ezein arrisku eragozte aldera.

11. artikulua.- **ABONATUEN ESKUBIDEAK**

Egoera espezifiko batzuk direla-eta abonatuak izan ditzakeen eskubideak ere aintzat hartuta, hauek dira, oro har, dituen eskubideak:

Uraren edangarritasuna: Indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren edangarritasun baldintzak betetzen dituen ura jasotzeko bere instalazioetan.

Zerbitzu etengabea: Edateko uraren hornidura etengabe edukitzeko, Erregelamendu honetan eta aplikatzeakoak diren gainerako xedapenetan adierazitako bestelako mugarik gabe.

Fakturazioa: Jasotzen dituen zerbitzuak ordaintze aldera, unean-unean indarrean dauden kontzeptuak eta zenbatekoak faktura dakizkion.

Irakurketaren maiztasuna: Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak gutxienez sei hilean behin egiteko hornidura kontrolatzen duen neurgailuaren irakurketa.

Fakturazioaren maiztasuna: Jasotzen dituen zerbitzuen fakturazioa gehienez ere hiru hilean behin egite diezaioten.

Barruko instalazioak: Abonatuak berak hautatu ahal izango du libreki barruko instalazioak egingo dizkion instalatzaile baimendua, bai eta materialaren hornitzailea nor izango den ere; nolana ere, arauaren arabera eska daitezkeen baldintza teknikoak bete beharko ditu materialak.

Erreklamazioak: Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren edo hango langileen jardueraren aurkako erreklamazioa egiteko, Erregelamendu honetan xedatutako prozedurak baliatuz. Ur horniduraren baldintzak betetzearekin zerikusia baldin badu erreklamazioak, erreklamatzailerak egiaztatu behar du hornidura kontratuaren titularra edo haren legezko ordezkaria dela.

Informazioa: Horniduraren zerbitzuarekin eta funtzionamenduarekin zerikusia duten gaiei buruzko kontsultak egiteko, eta prozedura hori erabiliz egindako kontsulten erantzunak idatziz jasotzeko. Eskubidea du, halaber, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak indarrean dagoen araudiari buruz informa diezaion, hala eskatzen badu, bai eta Erregelamendu honen ale bat abonatuaren harrerarako bulegoan eskuragarri izateko ere.

Zigiluak kentzeko: Premia larria gertatuz gero, instalatzaile baimenduak kontagailuaren zigilua kendu ahal izango du, eta horren berri eman behar dio Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari, zigilua kendu eta 24 ordu baino lehen.

III. KAPITULUA

HORNIDURA ETA SANEAMENDU SAREAK

12.artikulua.- **HORNIDURA SAREA**

Edateko uraren banaketa sarea edo hornidura sarea hodi guztiek eta edateko ura presioan daramaten mugimenduko eta kontroleko gainerako elementu guztiek osatzen dute; haietatik irteten dira abonatuta daudenentzako ur harguneak.

13. artikulua.- **UR HARGUNEAK**

Hoditeria eta hornitu nahi den lursailaren, lokalaren, instalazioaren edo dena delakoaren barruko instalazioa lotzen dituen hodian eta gainerako elementu guztien multzoa da.

Harguneak honako oinarritzko eskema honen arabera izango dira, eta elementu hauek osatuko dituzte:

- a) Ura hartzeko gailua. Banaketa sareko hodiaren gainean dago, eta hargunea irekitzen du.
- b) B) Hodi adarra. Ura hartzeko gailua eta erregistro giltza lotzen duen hodi zatia da.
- c) c) Erregistro edo hargune giltza. Hargunearen gainean egongo da, bide publikoan eta hura hartzeko gailuaren ondoan. Uren zerbitzuak edo baimendutako pertsonak soilik erabiliko dute; hortaz, abonatuak, jabeak edo hirugarren pertsonak ezin izango dute erabili. Behar bezala homologatutako erregistro kutxatilan egongo da, erabili eta konpondu ahal izateko moduan.

14. artikulua.- **UR HORNIDURAKO INSTALAZIO PARTIKULARRAK**

Ur hornidurako instalazio partikularizat honako hau hartuko da: hodian multzoa eta kontroleko, mugimenduko eta segurtasuneko gainerako elementu guztiak; baina betiere uraren zirkulazioari jarraituz, erregistro edo hargune giltzaren ondoren kokatuta dagoena, haren bide trazadura bide publikoan egon zein lurzoru pribatuetan egon.

15. artikulua.- **SANEAMENDU SAREA**

Biztanlegune jakin bateko sareak osatzen dituzten hodian eta gainerako elementu guztien multzoa da saneamendu sarea; hodi eta elementu horiek hondakin urak ateratzen dituzte harguneetatik edo hustubideetatik, eta hondakin uren araztegiraino edo zaborguneraino garraiatzen dituzte, grabitate indarraren bidez edo ponpaketa bidez.

Saneamendu sareak izan daitezke hondakin urenak, euri-urenak, baterakoak edo industrialak, biltzen eta garraiatzen duten isurki motaren arabera.

16. artikulua.- **SANEAMENDUKO HARGUNEAK**

Eraikinaren barruko instalazioak eta hoditeria lotzen dituzten hodian eta gainerako elementu guztien multzoa da.

Harguneak honako oinarritzko eskema honen arabera izango dira, eta elementu hauek osatuko dituzte:

a) Abio kutxatila. Jabetzaren mugaren ondoan egongo da beti, finkaren kanpoko aldean ahal dela.

b) Garraio hodiak. Abio kutxatiletatik saneamendu sarearekiko lotune putzuetaraino doazen hodi zatiak dira.

c) Lotuneak. Hargune partikularreko hodiak eta udal saneamendu sarea elkartzen diren guneak dira. Lotune horretan erregistro kutxatila edo putzu bat jarriko da, Ura eta Saneamendua Zerbitzuak baimentzen dituen salbuespenak izan ezik.

17.artikulua.- **SANEAMENDUKO INSTALAZIO PARTIKULARRAK**

Saneamenduko instalazio partikularizat honako hau hartuko da: kutxatilen eta hodian multzoa, eta mantentze lanak egiteko, erregulatzeko eta segurtasuneko gainerako elementu guztiak; baina betiere uraren zirkulazioari jarraituz, udal saneamendu sarearekiko lotunearen aurretik kokatuta daudenak, haien bide trazadura bide publikoan egon zein lurzoru pribatuetan egon.

IV. KAPITULUA

INSTALAZIO PARTIKULARRAK

18. artikulua.- **BALDINTZA OROKORRAK**

Ura hornitzeko eta ura ateratzeko instalazio partikularrak baimendutako instalatzaile batek gauzatuko ditu; nolana ere, unean-unean indarrean dauden arauak eta legeak agintzen dutenera egokituko dira instalazioak.

Instalazio horien kontserbazio lana eta mantentze lana unean uneko horniduraren titularren kargurakoak eta konturakoak izango dira.

19. artikulua.- **INSTALAZIOEN TIPIFIKAZIOA**

Ur hornidurako barruko instalazioak gauzatzeko eta instalazio horien bidez zerbitzua abian jartzeko baimenak administrazioan izapidetzeko, unean-unean indarrean dauden arauetan eta legeetan jasotako taldeen arabera sailkatuko dira instalazioak.

20. artikulua.- **ZERBITZUA ABIAN JARTZEKO BAIMENA**

Barruko instalazioen zerbitzua abian jartzeko baimena lortze aldera beharrezkoa den dokumentazioari eta izapidetzeari dagokienez, aurreko artikuluan xedatutakoa (instalazioen tipifikazioa) eta unean-unean indarrean dauden arauetan eta legeetan xedatutako baldintzak zein eskakizunak bete behar dira.

21. artikulua.- **ALDAKETAK INSTALAZIO PARTIKULARRETAN**

Hornidura eta saneamendu zerbitzuetara abonatuta dauden pertsonak behartuta daude barruko instalazioen egituran edo ezaugarrietan egindako aldaketa ororen berri ematera Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari.

Nolana ere, aldaketa horiek Erregelamendu honetan xedatutakoa betetzeaz gain, Ura eta Saneamendua Zerbitzuaren oniritzia behar dute ezein aldaketa egiteko.

22. artikulua.- **IKUSKARITZA ESKUMENA**

Ikuskaritza egiteko eskumena Administrazioako erakundeek edukitzeaz gain, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak bere abonatuaren instalazioak ikuskatu ahal izango ditu, hornidura nola eta zer baldintzatan erabiltzen den zaintzeko.

V. KAPITULUA

HORNIDURA

23. artikulua.- **BAIMENA EMATEA**

Edateko ura hornitzeko hargune baimena ematea Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari dagokio, eta Erregelamendu honetan xedatutako baldintzak eta egoerak betetzen diren guztietan emateko betebeharra du, Erregelamenduan bertan xedatutako arauak betez.

24. artikulua.- **BAIMENAREN BALDINTZAK**

Ur hornidurako hargune bat jartzeko baimena lortu ahal izateko, hornidura osorako baldintzak bete behar dira. Hauek dira baldintzak:

1. Hornitu behar den eraikina horniduraren estaldura eremuaren barruan egotea.
 2. Hornitu nahi den eraikinak barruko instalazioak edukitzea eta Erregelamendu honetako baldintzetara egokituta egotea haiek.
 3. Hornituko den eraikinak hondakin uren eta euri uren hargune bat edukitzea, edo haiek ateratzeko sistemaren bat edukitzea; azken kasu horretan, propio behar diren baimen guztiak izan behar ditu.
 4. Eraikinaren mugakide diren izaera publikoko kaleetan edo plazetan, edota eraikinaren fatxadaren aurrean, edateko uraren banaketa sare publikoko hodiak instalatuta eta martxan egotea.
- Bide publiko batean ura eramateko hoditeria bi espaloietan proiektatuta badago, horiek aurreko espaloian egoteak ez du esan nahi aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzen denik.
5. Eraikina hornitu behar duen hoditeria zerbitzua emateko egoera ezin hobean egotea, eta haren garraio ahalmena kasuan kasuko harguneari dagokion erregimen hidraulikoaren halako laukoa izatea gutxienez.
 6. Lursailak edo eraikinak hargunea baldin badauka eta beste bat eskatzen bada, aurrekoa erabiltzeari utzita, erabiliko ez dituen harguneari deuseztatzea, udal sarearekin lotuta dagoen gunetik.

25. artikulua.- **JARDUERAK ESTALDURA EREMUAN**

Erregelamendu honetako 6. artikuluan zehaztutako estaldura eremuaren barruan hornidura osorako baldintzak betetzen badira eta hargunerako dagokion baimena izapidetuta badago, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua behartuta egongo da eskatutako hargunea edo harguneari zerbitzuan jartzeko beharrezko lanak eta instalazioak egitera, hamabost egun balioduneko epean, baimena gauzatutako egunetik zenbatzen hasita.

Udalaren estaldura eremuaren barruan egon arren, hornidurarik ez duten tokietan hornidura berrietarako baimena, edo, hornidura izanik, inguru horretan dauden instalazioak handitzeko edo aldatzeko kasuan kasuko baimenak, hornidurarako baldintza teknikoaren baitan edo

Udalak onartutako inbertsio planen baitan egongo da.

Nolanahi ere, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua ez dago behartuta ur emari baten hornidura presio jakin batekin egiteko.

Ur emari jakin baterako nahikoa presiorik egongo ez balitz, eskatzaileak berak jarri beharko du presioa handitzeko sistema partikular bat eta haren mantentze lana egin.

Hornidurarik ez duen edo nahikorik ez duen toki baterako eskaera egiten duen oro behartuta dago kontsumoen eskaera berriari aurre egiteko beharrezkoak diren sare handitzeak edo aldaketak eragindako gastu guztiak bere gain hartzera, bere kontura eta diru hori berreskuratzeko aukerarik gabe.

Eskatzaile bati edo gehiagori erantzuteko, etorkizuneko beharrak aurreikusiz beharrezkoa baino gehiago handitzen edo aldatzen bada sarea, kostua sarearen erabiltzaile berrien eta etorkizunekoaren artean banatuko da, saretik doan emariari dagokionez erabiltzaile bakoitzarentzat bideratutako emaria kontuan hartuta.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak zehaztuko ditu sarea handitzeko eta aldatzeko baldintza teknikoak.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak ez du inolako betebeharririk izango hirigintzako jardueraren baten ondorioz sare eta instalazioen bide trazaduretan edo kokapenetan aldaketak, luzapenak edo sendotze lanak egiten badira aurretik zeudenek traba, oztopo edo zortasuna eragiten zutelako.

Estaldura eremuaren barruan eraikitzen diren poligono eta urbanizazio berrietan egiten diren jarduerak artikuluko honetako aurreko puntuetan adierazitako betebeharrak eta baldintzetatik salbuetsita daude, eta hurrengo artikuluan adierazitako baldintzen arabera arautuko dira.

26. artikulua.- **URBANIZAZIOAK ETA POLIGONOAK**

Erregelamendu honetan honako hau hartuko da urbanizaziotzat eta poligonotzat: lursaila banatzen den lurzati edo orube desberdinen artean edo aipatutako horien eta hiriguneko eremu eraikiaren artean bide eta zerbitzu azpiegituraren bat egitea, aldatzea edo handitzea eskatzen duten lursailen multzoak.

Aurreko paragrafoan definitutako poligono edo urbanizaziorako edo haietan dauden orube edo eraikinetarako hargunea edo hornidura emateko, honako baldintza hauek bete behar dira aldez aurretik:

a) Urbanizazio edo poligono horiek urez behar bezala hornitzeko beharrezkoak diren barruko banaketa sareak eta gainerako instalazio guztiak Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak onartutako eskemen arabera egingo dira, eta sare eta instalazio horien ezaugarriak eta neurriak eskumena duen teknikari batek proiektu batean jasoko ditu, Udalak onar ditzan; horrez gain, proiektu hori aplikatzekoak diren erregelamenduetan eta unean-unean indarrean dauden arau eta legeetan xedatutakora egokituko da, eta urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kargura eta kontura egingo da.

b) Onartutako proiektuan zehaztutako obrak eta instalazioak, bai eta Ura eta Saneamendua

Udal Zerbitzuaren baimenarekin proiektua gauzatu bitartean egindako aldaketak ere, oso-
osorik urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta kargura
egingo dira, eta beti ere eskumena duen teknikariaren, eta kasua balitz, Industriako Lurralde
Ordezkaritzak homologatutako enpresa instalatzailearen zuzendaritzapean.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak obrak egin bitartean, onartzeko unean edo zerbitzuari
ekitean, obrak behar bezala egiten ari direla eta proiektuan adierazitako materialen kalitate
ezaugarriak betetzen direla ziurtatzeko, beharrezkoak iruditzen zaizkion probak eta
saiakuntzak eskatu ahal izango ditu, eta proba horiek eragindako gastuak urbanizazioaren
sustatzailearen edo jabearen kargurakoak izango dira.

Urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzaileak edo egileak ezingo du inola ere uraren
hornidura egin hango eraikinetan, orubeetan edo lurzatietan, aldez aurretik ez badu
horretarako propio Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren baimena eta dagokion emakida
formalizatuta.

c) Poligonoen barruko sareen eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren mendeko
kanpoko sareen arteko lotura edo loturak, bai eta urbanizazioak berak eragindako premia
berrien ondorioz egin beharreko aldaketak ere, Udal Zerbitzuak berak zehaztuko ditu eta
artikulu honetako a) letran adierazitako proiektuan jasoko dira argi eta garbi; eta egin,
berriz, urbanizazioaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta kargura egingo dira.

Behin sareak eta sistema orokorreko loturak egin ondoren, udalaren jabetzakoak izango
dira aurrerantzean; hala eta guztiz ere, obrak ez badira Ura eta Saneamendua Udal
Zerbitzuak zehaztutako irizpide teknikoaren arabera egin, obrak onartzeari uko egin diezaioke
eta sistema orokorrarekiko loturak egiteko baimena ezeztatu.

Landa lurzoruan edo lurzoru urbanizaezinetan hornidura ematea indarrean dagoen
hirigintzako legediak baimentzen dituen egoerataro mugatuta dago.

27. artikulua.- UREZTATZE AHOAK

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak ureztatze ahoen bidezko hornidurak kontratatu ahal
izango ditu, baina aldi baterako baino ez. Hornidura horiek eskatzen dutenei bakarrik emango
zaizkie. Mota horretako kontratuak gehienez ere hiru hileko indarraldia izango dute.
Kontratatu beharreko bolumena Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak zehaztuko du, eta ez
da eguneko 5 m³ baino txikiagoa izango. Ureztatze ahoen bidezko behin behineko hornidura
aldez aurretik ordaindu beharko da, kontratuaren indarraldiko eperako kalkulaturako
kontsumoari dagokion zenbatekoa, hain zuzen; horrez gain, ureztatze ahoetan izan
daitezkeen kalteei aurre egiteko fidantza edo berme bat jarri beharko da. Kontratuaren
indarraldia amaitzean, iritzira kalkulaturako kontsumoaren eta benetan kontsumitutakoaren
arteko aldeak likidatuko dira.

Ureztatze aho horietako behin behineko harguneak abonatuak egingo ditu hodi hariztatuen
edo "belarrien" bidez, eta hari iturria jarriko dio, ur jarioak eragozteko. Behin aho horiek erabili
eta gero, ondo itxita utzi beharko dira, ura alferrik gal ez dadin. Hodiaren haria edo "belarria"
ureztatze ahoari dagokiona izango da, hau da, neurri berekoa. Oker erabiltzeagatik ureztatze
ahonetan eragindako kalteak konpontzeko gastuak abonatuta dagoen pertsonaren
konturakoak izango dira, eta jarrita zuen fidantzatik kenduko zaio.

Kontagailua hodiaren edo "belarriaren" gainean jarriko da, eta Ura eta Saneamendua Udal
Zerbitzuak emandako identifikazio txartel baten bidez adieraziko da hala dela; identifikazio

txartel hori kontagailuan ikusteko moduan, agerian, egongo da beti, eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak adierazitako moduan itsatsiko da. Instalazioa abonatuaren kargura egingo da, eta, ez dezaten lapurtu edo hondatu, zaindu eta behar beste segurtasun neurri hartuko ditu. Kontagailuak 38. artikuluan adierazitako ezaugarriak bete behar ditu.

Abonatuak Uren Udal Zerbitzuko langileei edo hark baimendutako langileei, edota udaltzainei erakutsi beharko die hornidura kontratua, haiek hala eskatuz gero.

Instalazioa ikuskatu ondoren, ura alferrik galtzen dela edo erabilera desegokia ematen zaiola egiaztatuko balitz, hornidura eten egingo da. Abonatuak hornidurarako erabilzen dituen hodiak eta mahukak behar bezala babestu eta zaindu beharko ditu, jariorik izan ez dezaten.

Abonatuak kontratatutako hargunea ureztatze aho batetik beste batera aldatu nahi badu, aurretik eskatu egin beharko du eta eskaeran adierazi hargune berria non dagoen eta kontagailuak une horretan zer erakusten duen.

Bide publikoa ureztatzeko kontratuek urtebeteko indarraldia izango dute eta ez dute arestian adierazitako betebeharririk. Alabaina, hilero jakinarazi beharko diote Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari kontagailuaren neurketa eta, horrez gain, urtean behin, Zerbitzuak erabakitzen duen egunean kontagailua eta "belarria" aurkeztu beharko dituzte, egiazta ditzaten.

28. artikulua.- **EZAUGARRIEN ZEHAZTAPENAK**

Harguneen ezaugarriak, bai materialen neurriei, osagaiei, motei eta kalitateari dagokionez, bai gauzatzeko moduari eta lotuneari dagokienez, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak zehaztuko ditu, kontuan hartuta hornituko den eraikinaren erabilerarako ezarritakoa, aurreikusitako kontsumoak, presio baldintzak eta eranskinen jasotako berezitasunak.

Benetan eskatutako ur emaria aipatutako emaria baino handiagoa bada, egindako eskaera dela-eta eskatzaileak dituen betebeharez gain, emaria handitzeko hargunearen ezaugarrietan egin beharreko aldaketek eragindako gastu guztiak eskatzaileak ordainduko ditu.

Lehen adierazitako kasu jakin horretan, eta kontagailuen baterien neurriei dagokienez, 40 m² bakoitzeko, gutxienez, merkataritzako lokal bat dagoela ulertuko da.

29. artikulua.- **ESKAERAK IZAPIDETZEKO MODUA**

Interesa duen pertsonak egingo dio hargunearen eskaera Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari, horretarako propio emango dion eskaera orri normalizatu batean.

Eskaerarekin batera, gutxienez, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) Kokapenaren, iturgintzaren, saneamenduaren eta, hala balegokio, suteen aurkako hargunearen planoak.
- b) Jabetza eskritura edo hornidura eskatzen den ondasun higiezinaren erabilgarritasuna egiaztatzen duen agiria.
- c) Obretarako Udal Lizenziaren zenbakia eta baimena eman zitzaion data.
- d) Kasuan kasuko baimena, hargunearen bide trazadura jabetza pribatutik igarotzen bada.
- e) Nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiak badira, organo eskudunak hori hala dela

egiazatzeko ematen duen agiria aurkeztu behar da.

Eskatzaileak aurkezten dituen datuen arabera, eraikinak dituen ezaugarrien arabera eta banaketa sareen egoeraren arabera, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak eskaera aurkeztu eta hamabost lanegun baino lehen jakinaraziko dio interesdunari eskatutako hargunearentzako edo harguneentzako baimena ematen dion edo ukatzen dion; baimena ukatuz gero, baimena ez emateko arrazoiak azalduko dizkio.

Eskatzaileak, bestalde, beste hogeita hamar eguneko epea izango du Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak egindako errekerimenduei erantzuteko edo, beharrezkotzat hartuz gero, egoki irizten dituen alegazioak aurkezteko. Epe horretan ez bada araututakoa bete, eskaera indargabetu egingo da, eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak ez du bestelako betebeharririk izango.

Eskaera onartzen bada, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak hamabost lanegun baino lehen jakinaraziko du zer ezaugarri behar dituen harguneak edo harguneek, bai eta zer egoera eta baldintza bete behar dituzten, bai baimenak bai obrak.

30. artikulua.- **BAIMENA EMATEAREN XEDEA**

Edateko ura banatzeko sareetara hargunea izateko baimena eraikuntza unitate independentea osatzen duen eta bide publikorako irisbide zuzena duen higiezin bakoitzari emango zaio.

Araututakoa aplikatu ahal izateko, honako hau hartuko da eraikuntza unitate independentetzat: sarrerako atari bakarra duten etxebizitzak edota lokalen multzoa, bai eta industria edo merkataritza jarduera bakarra duten eta pertsona fisiko edo juridiko bakar batenak diren merkataritza edo industria eraikinak ere.

Eraikuntza unitate independentearen beheko solairuetan dauden lokalak, nahiz eta sarrerako atari bera ez eduki, higiezinako kontagailuen batera orokorretik hornituko dira.

31. artikulua.- **BAIMENA FORMALIZATZEA**

Bi aldeek baimenaren baldintzak onartu eta gero, kasuan kasuko kontratua sinatuko dute; nolana ere, kontratu horrek ez du eraginik izango harik eta eskatzaileak Erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera dagozkion betebeharrak ekonomikoak betetzen dituen arte.

32. artikulua.- **OBRAK ETA KONTSERBAZIOA**

Ur hornidurarako harguneen obrak Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak baimendutako pertsona batek egingo ditu, Erregelamendu honetan horretarako propio xedatutakoa betez; hargune horien kontserbazio lanek eta mantentze lanek eragindako gastuak, berriz, jabeek hartuko dituzte beren gain.

Hargunea jartzeko zangak irekitzeko eta ixteko lanak (bide publikoan izan zein jabetza pribatuan izan), erretenak egiteko lanak eta hormak zein zoladurak zultzeko lanak abonatuak egingo ditu; hau da, obraren kostuak abonatuaren kargurakoak izango dira eta

hark bakarrik izango du erantzukizuna. Obrak egiteko eta hargunea behar bezala egiteko Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak emango dizkion jarraibideak bete beharko ditu.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gain, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak egin ahal izango ditu han aipatzen diren obrak, beti ere abonatuak hala eskatzen badu; nolana ere, obrak eskatzailearen konturakoak izango dira.

Hargunea egiteak eragindako kostua eskatzailearen konturakoa izango da; ordainarazpenari eta jasotzeko moduari dagokionez, zerga alorreko erregelamenduan xedatutakoa bete beharko da.

Instalazio hau Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak baimendutako langileek soilik maneiatu ahal izango dute; horrenbestez, urez hornitutako eraikinaren jabeak ezin izango du inguru horretan inolako aldaketarik egin, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren berariazko baimenik ez badu.

33. artikulua.- **HARGUNE ZERGAK**

Hargune bat eskatzen duen pertsonak Udalari ordaindu behar dion konpentsazio ekonomikoa da, eskatutako hargunea egiteak eragindako gastua ordaintzeko eta inbertitu beharrekoaren balio proportzionala konpentsatzeko; hain zuzen, hornidura berri hori egin aurretik hornitzen zen baldintza berberetan hornitzen jarraitu ahal izateko, inolako galerarik eragin gabe lehendik zeudenei, egin beharreko handitze lanak, aldaketak eta hobekuntzak egiteko inbertitutakoaren balio proportzionala konpentsatzeko.

Hargunea egiteko baimena emateak berekin dakar eskatzaileak Udalaren zerga ordenantzan xedatutakoaren arabera dagokion tasa ordaindu behar izatea.

Hargune zergak behin ordainduko dira; zerga horiek ordaindu ondoren, abonatuak instalazioetara, etxebizitzetara, lokaletara eta abarretara atxikita geratuko dira, nahiz eta dena delakoaren jabea edo erabiltzailea aldatu.

Abonatu batek lehendik zegoen hargune baten sekzioa handitzea eskatzen badu, eskatutako hargunearen eta lehendik zegoen hargunearen zenbatekoen arteko aldeari dagokion kopurua ordainduko du.

VI. KAPITULUA

SANEAMENDUA

34. artikulua.- **BALDINTZA OROKORRAK**

Erregelamendu honetan jasotako xedapenak dira aplikatzekoak, oro har, saneamendu zerbitzuari; ez dira aplikatzekoak, ordea, hornidura zerbitzurako bakarrik diren xedapen espezifikoak. Nolanahi ere, hurrengo artikuluetan jasotako berezitasunak kontuan hartzekoak dira.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako “hornidura”, “hornidura edo horniketa”, “kontsumoak” eta “hornitu” terminoek “hustuketa”, “saneamendua”, “isurketak” eta “hustuketa sistema dutenak” terminoei egiten die erreferentzia, hurrenez hurren.

Arau orokor gisa, ur beltzen saneamendu sareetan etxeko erabilerako urak soilik isuri ahalko dira; gainerako jardueretan (industriak, zerbitzuak, ostalaritza...) ura isuri aurreko tratamendu sistemak (bereiztekoak, araztekoak...) aurreikusi behar dituzte, amaieran isuritakoa etxeetako isurketekin asimilagarria izan dadin. Euri uren saneamendu sareetan teilatuetako edo lursailtako euri uren ohiko bilketako urak soilik isuri ahalko dira; hau da, ezin izango da inola ere beste jarduera baten ondorioz sortutako kutsadura kargako elementurik isuri euri urarekin batera. Baterako saneamendu sareetan egiten diren isurketek ur beltzen eta euri uren saneamendu sareetarako xedatutakoa bete beharko dute.

35. artikulua.- **HARGUNEAK**

Saneamenduko hargunea Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak egokientzat jotzen duen gunean konektatuko da saneamendu sarera, eta konektatu ondoren haren jabetzakoa izango da.

Saneamenduko harguneen obrak Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak baimendutako pertsona batek egingo ditu, Erregelamendu honetan horretarako propio xedatutakoa betez; hargune horien kontserbazio lanek eta mantentze lanek eragindako gastuak, berriz, jabeek hartuko dituzte beren gain.

Saneamenduko harguneen diseinuak eta eraikuntzak haien estankotasuna ziurtatu behar dute, batez ere saneamendu sarearekiko lotunean. Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak bai hargunearen abiagunean bai eta sarearekiko lotunean ere kutxatilik instalatzea eskatu ahal izango du. Horrez gain, emariak kontrolatu eta neurtzeko kutxatilik eraikitzea eta dagozkien neurketa sistemak instalatzea ere behartu dezake. Hori guztia Udal Zerbitzu horrek emandako zehaztapenen arabera egingo da. Nolanahi ere, saneamenduko harguneak egitura aldetik sendoak izateko proiektatu eta egin beharko dira, garraiatu beharreko uren erasogarritasun ezaugarriak kontuan hartuta.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak ur beltzetarako eta euri uretarako hargune bana, independenteak, instalatzea eskatu ahal izango du, eta, horren ondorioz, sare banandua egitea hustuketa zerbitzua jasotzen duen eraikinean edo lursaillean.

Eraikuntza berriak badira edo lehendik zeudenak birgaitu badira, saneamenduko hargune partikularrak eraikinaren kanpoaldean egongo dira, gehienez ere 1,20 metroko sakoneran,

saneamenduko udal sareen sakoneran enbarazu egin ez dezaten. Baldintza hori ezin bada bete, eskatzaileak hondakin urak goratzeko multzo bat instalatu eta haren mantentze lana egin beharko du bere kontura.

Lehendik zeuden eraikinak eta harguneak badira, hargunea saneamenduko udal sareari ezarri beharko litzaioke, lehendik zegoen kolektorearen kota gaintik gutxienez 0,50 metrora, udal sarearen eta hargune partikularren funtzionamendu egokia ziurtatze aldera. Baldintza hori betetzen ez bada, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak egoera hori konpontzeko jarduerak egiteko eskatu ahalko die jabeei, eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak ez ditu inola ere bere gain hartuko egoera horren ondorioz hargune partikularretan gerta daitezkeen kalteak.

Saneamenduko udal sareetan aldaketa handiak egiten badira, Udalak harguneak aldatzeko eskatu ahalko die kasuan kasuko eraikinetako harguneen jabeei, Erregelamendu honetan xedatutakoa betetzeko.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak isurketen kontrol espezifikoak egitea beharrezkotzat edo komenigarritzat hartzen badu, nahitaez instalatzekoa izango den isurketen neurgailua diseinatuko du eta haren ezarpen sistema ere adieraziko du. Horrez gain, isurketen laginak hartzeko kutxatila bat eraikitzeko ere eskatu ahal izango du, zerbitzuak onartutako diseinuaren arabera.

Sanemandu harguneetarako izapideak eta emakidak ordenantza honek 29., 30., 31., 32. eta 33. artikuluetan hornidura harguneetarako jartzen duenari jarraituz egingo dira.

36. artikulua.- JARDUERAK ESTALDURA EREMIAN

Saneamenduko azpiegiturarik ez duten edo saneamenduko azpiegitura nahikorik ez duten zonaldeetan, erabiltzaileek konponbide bereziak bila ditzakete, hala nola hobi septikoak edo beharrezkoa iruditzen zaien arazketa sistemaren bat; nolahi ere, derrigorrean egin behar du eskumena duen teknikari batek dena delako konponbidearen proiektua eta hark kontrolatu behar du obra, eta, horrez gaiz, Udalak edo gai horretan eskumena duen erakundeak berriazko baimena eman behar du.

Konponbide horiek eta emandako baimenak behin-behinekoak izango dira, eta Udalak lursailaren inguruan saneamendu sarearik ez duen bitartean onartuko dira. Saneamendu sarea jartzen den unean egingo da sarearekiko lotura, Erregelamendu honetan adierazitako moduan eta baldintzetan.

Araudi honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hargunea jarri beharreko tokian 100 metroko distantzian kolektore sarearik ez duten zonaldeak hartuko dira azpiegiturarik gabekotzat.

Eta saneamendu azpiegitura nahikorik ez duen zonaldetzat, berriz, hargunea jarri beharreko tokian isurketa eskaera berriari erantzuteko garraiorako behar besteko ahalmenik edo kotarik ez duena. Isurketa kotarik ez badu, ponpaketa sistema baten bidez eman beharko zaio konponbidea, eta jabeek hartu beharko dute beren gain hura egitea eta haren mantentze lana.

Lehen adierazitako distantzia baino distantzia txikiagora kolektoreak baldin badaude eta garraiorako kota eta ahalmena nahikoa bada, baina teknikari eskudunaren ustez lotura egiteko bestelako eragozpen teknikoak baldin badaude, horren berri eman behar zaio Udalari

hark balorazioa egin dezan, eta erabaki ahal izango du, kasuan kasuko egoerak kontuan hartuta, saneamendu azpiegitura nahikorik ez duen zonaldea den.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua ez da behartuta egongo etxeko instalazio berezirik jaso, garbitu eta saneatzera, baldin eta honako hauen ondorio ez bada: horretarako propio akordio bat izatea Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren eta hondakin urak arazteko instalazio partikularraren jabearen artean, eta halakoetan hitzartutakoa bete beharko da; eta saneamenduaren berezko zerbitzuak kobratzearen ordainetan ematea zerbitzu hori.

VII. KAPITULUA

KONTSUMOAREN KONTROLA

37. artikulua.- NEURGAILUAK

Unean-unean indarrean dagoen legediak eta araudiak kasu bakoitzerako xedatutakoaz gain, hornidura ororen fakturaziorako oinarri gisa erabili behar diren kontsumoen neurketa kontagailuen bidez egingo da, kontsumoa kontabilizatzeko bide bakarra den aldetik.

Arau orokor gisa, bide publikora ematen duten eraikinetan honela neurtuko da kontsumoa:

- Kontagailu bakarra: eraikinean edo lursailean etxebizitza edo lokal bakarra baldin badago, behin-behineko horniduretan eta obrak egiten ari diren poligonoetan, baldin eta barruko banaketa sareak hartzen ez baditu.
- Banakako kontagailuen bateria: etxebizitza edo lokal bat baino gehiago baldin badaude, derrigorrezkoa izango da haietako bakoitzerako neurgailu bat instalatzea, bai eta beharrezko guztiak ere batera dituzten zerbitzuetarako.

Edonola ere, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak kontagailu orokor bat jarri ahal izango du barruko instalazioa hasten den gunean, eta haren funtzio bakarra instalazio horretako kontsumo osoa kontrolatzea izango da. Kontagailu horren bidez lortutako datuek ez dute inolako eraginik izango fakturazioan, eta barruko instalazioan izan daitezkeen arazoak hautemateko erabiliko dira. Arazoren bat hautemanez gero, berehala jakinaraziko zaie abonatuei eta haiek behartuta egongo dira arazoari irtenbidea ematera, Erregelamendu honetako 61. artikuluko "m" letran adierazitako epean.

Kontagailuaren edo kontagailuen neurriak eta ezaugarriak zehaztea, edozein dela baliatutako instalazio sistema, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren eskumena da. Neurriak eta ezaugarriak zehazteko, abonatuak hornidura eskaeran adierazten duen kontsumoa hartuko da kontuan, bai eta unean-unean indarrean dagoen araudian eta legedian xedatutakoa ere.

38. artikulua.- NEURGAILUEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Neurgailuen ezaugarri teknikoak, Europar Batasuneko araudira egokituta, honako hauek izango dira:

a) Baimendutako gehieneko erroreak:

Beheko aldean baimendutako gehieneko errorea, gutxieneko emariaren (Q1) eta tarteko emariaren (Q2) artekoa hartzen duena, $\% \pm 5$ izango da. Goiko aldean baimendutako gehieneko errorea, tarteko emariaren (Q2) eta gehieneko emariaren (Q4) artekoa hartzen duena, $\% \pm 2$ izango da.

b) Kontagailu motak:

Ez da instalatuko kasuan kasu dagokion egiaztapen ofizialeko bermerik ez duen edota Industriako Lurralde Ordezkaritzaren batek emandako jatorrizko bermerik ez duen kontagailurik.

Instalatuko diren gailuak beti eta derrigorrean izango dira Udalak ofizialki homologatutako modeloren batekoak, eta Ura eta Saneamenduko Zerbitzuak egiaztatu eta zigilatu behar ditu.

Eraikuntza berriei dagokienez, instalatuko diren kontagailuek teleirakurketako sistema finko bat eduki behar dute, eta Ura eta Saneamenduko Zerbitzuak baimendu eta onartu behar du lehendabizi.

Instalatuko diren kontagailu guztien irakurketa 0 izango da instalatzen diren unean.

c) Definizioak eta terminologia

Gutxieneko emaria (Q1): emari txikiena da, ezinbestekoa kontagailua ibil dadin baimendutako gehieneko errorearen barruan ($\pm 5\%$).

Tarteko emaria (Q2): gutxieneko ur emariaren eta emari iraunkorraren arteko emaria da, emarien mugak bitan banatzen dituen, nor bere doitasun marjina duela.

Emari iraunkorra edo nominala (Q3): emari handiena funtzionamendu baldintza arruntetan, ezinbestekoa kontagailua behar bezala ibil dadin baimendutako gehieneko errorearen barruan ($\pm 2\%$).

Gehieneko edo gainkargako emaria (Q4): kontagailua denbora epe laburrean ibil daitekeen emari handiena da, baimendutako errorearen barruan eta gerora errendimendu metrologikoari eutsita.

39. artikulua.- **KONTAGAILU BAKARRA**

Armairu baten barruan instalatuko da, babesteko eta maniobrarako giltzekin eta gainerako elementu guztiekin. Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak homologatutakoa izango da eta horretarako erabiliko da bakar-bakarrik. Hornituko den eraikinaren beheko solairuan egongo da, sarrerako atearen ondoan eta fatxadako horman sartuta edo etxearen jabetzako itxitura batean. Edonola ere, derrigorrezkoa da bide publikotik zuzeneko sarbidea edukitzea.

Inoiz, eta behar bezala justifikatuta badago, kontagailu bakarra, maniobrarako giltzak eta gainerako elementu guztiak lurpeko gela batean instalatu ahalko dira, baina kaletik sarrera zuzena izan behar du eta fatxadaren edo jabetzako itxituraren ahalik eta gertuen egongo da.

Kontagailuaren armairua edo gela estankoa izango da, eta hustubidea izango du zuzenean estolderiara, instalatuko den harguneak eman dezakeen gehieneko ur emaria husteko ahalmena izango duena. Horrez gain, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak homologatutako atea eta sarraila izango ditu.

40 artikulua.- **BANAKAKO KONTAGAILUEN BATERIA**

Banakako kontagailuen bateriak helburu hori bakarrik izango duten lokaletan edo armairuetan instalatuko dira, eraikinaren beheko solairuetan, denen erabilerarako tokian eta ataritik sarbide zuzena duen tokian.

Kontagailuak batera dituzten bateriak ofizialki onartutako eta homologatutako mota eta modelotakoak izango dira.

Muntaga bakoitzaren hasieran eta banakako kontagailuen bateriarekin bat egiten duen gunean, balbula bat jarriko da ura banaketa sarera itzul dadin eragozteko.

Bateriak jartzeko lokalen eta armairuen baldintzak eranskinean jaso dira.

41. artikulua.- **KONTAGAILUAREN JABETZA**

Erregelamendu hau indarrean sartzen denetik instalatzen diren kontagailu guztiak Udalaren jabetzakoak izango dira, bai zerbitzuan egiten diren alta berri guztienak zein urte kopuruagatik edo matxuragatik aldatzen direnenak. Eraikuntza berriei dagokienez, kontagailuak Udalaren jabetzakoak izango dira zerbitzuan alta ematen ondoren.

Abonatua izango da neurgailuen eta kontrolerako gailuen zaintzaren erantzule, eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua, berriz, haiek maneiatzearen eta maneiatzeak eragindako ondorioena.

42. artikulua.- **EGIAZTAPENA EGITEKO DERRIGORREZKOTASUNA**

Erregelamendu hau indarrean jartzen den egunetik beretik, derrigorrezkoa da inolako salbuespenik gabe ur kontsumoaren fakturazioa erregulatzeko oinarri gisa erabiliko diren kontagailuen eta neurgailuen egiaztapena egitea eta haiei zigilua jartzea.

Industriaren alorrean eskumena duen erakundeak egiaztatu eta zigilatuko ditu gailuak laborategi ofizial edo baimendu baten bidez, honako kasu hauetan:

1. Gailuen funtzionamendu ohikoan kalteak eragin ditzaketan konponketak egin ondoren, edo zigilua kendu behar zaienean.
2. Hala egitea eskatzen duenean abonatuak, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua edo Herri Administrazioako organo eskudun batek.
3. Horniduraren titulartasuna aldatzen denean.

Gailuek ez badituzte arauz ezarritako baldintzak betetzen, konpondu eta berriro egiaztatu beharko dira.

Egiaztapenak laborategi ofizialetan edo baimenduetan egingo dira, eta etxean soilik egiaztatuko dira Zerbitzuaren ustez hala egitea posible denean; nolana ere, laborategietan egiaztatzen den modu berean egingo dute lan eta beren tresna eramangarriak erabilia.

43. artikulua.- **ZIGILU OFIZIALA**

Laborategi ofizialak edo baimenduak zigilua jarriko die egiaztatu dituen kontagailu eta neurgailu guztiei.

Egiaztatu ondoren jarritako zigilu ofizialak honako hauek ziurtatzen ditu:

1. Kontagailua edo neurgailua onartutako sistema batekoa dela.
2. Erregulartasunez dabilela.

Lehendabizikoz instalatzen diren kontagailu berrietan, jatorrizko egiaztatze marka dutela

egiaztatuko dute laborategian eta, beraz, egun hori hartuko da egiaztatze datatzat. Egun horretatik aurrera, kontagailuaren urteak zenbatuko dira, Erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako.

Abonatuaren betebeharra izango da kontagailua eta neurgailua zaintzea, bai eta egoera onean edukitzea ere; betebeharrak bera izango du kontagailuaren zigiluari eta etiketei dagokienez ere. Betebeharrak ez betetzeak eragingo duen erantzukizuna hornidurara abonatuaren pertsonak izango du.

44. artikulua.- **KONTAGAILUAK ALDIAN-ALDIAN ALDATZEA**

Kontagailuak aldi-an aldi berritzearen xedea da kontsumoen edukiera baimendutako neurrien barruan dagoela bermatzea, bai eta kontagailu guztiak behar bezala ibiliko direla ziurtatzea ere.

Kontserbazio egoera edozein dela ere, ez da kontagailurik edo neurgailurik egongo hamar urte baino gehiago instalatuta. Hamar urte igaro ondoren, Udalak zaharra kendu eta beste gailu berri bat jarri ahalko du.

Era berean, irtenbide teknologiko berriekin (teleirakurketa sistemak eta abar) zerikusia duten interes publikoko arazoak badira, Udalak kontagailuak aldatu ahal izango ditu, nahiz eta matxurarik ez izan eta hamar urte oraindik eduki ez.

45. artikulua.- **LABORATEGI OFIZIALAK EDO BAIMENDUAK**

Ur horniduran erabiltzen diren kontagailuak eta gainerako gailu guztiak frogatzeko, egiaztatzeko eta kontrolatzeko Eusko Jaurlaritzak jartzen dituen laborategiak hartuko dira laborategi ofizialtzat.

Laborategi ofizial horiez gain, beste laborategi batzuk jarri ahalko dira xede eta ondorio berberetarako, baina kasuan kasuko administrazioak horretarako emandako baimena eduki beharko dute, eta administrazio horrek emango ditu laborategi horiei baimena emateko bete behar dituzten arauak eta baldintzak.

46. artikulua.- **KONTAGAILUEN DESMUNTAKETA**

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak edo hark baimendutako pertsona batek egingo du beti kontagailuen eta neurgailuen konexioa eta deskonexioa, eta hark jarri ahalko dio zigilua instalazioari, eta, horrez gain, hark bakarrik izango du baimena, ustiapen arazoak tarteko, zigilua kentzeko.

Honako arazo hauen ondorioz desmuntatu ahalko dira kontagailuak eta neurgailuak:

- Industria Ordezkaritzak Ebazpen bidez hala egitea erabakitzen bada.
- Hornidura kontratua iraungitzen bada.
- Neurgailuan matxuraren bat gertatzen bada.

- Beste bat jarri behar bada aurrekoa kenduta, Erregelamendu honetan horretarako propio xedatutakoa betez.
- Kontsumoen erregimena aldatzen bada eta horren ondorioz instalatutako ahalmen teorikoa gairatzen bada, goitik edo behetik.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren iritziz kontagailua edo neurgailua behar bezala ez dabilelako seinale nabarmenak badaude, ondo ez dabilen gailua desmuntatu ahal izango du, aldez aurretik abonatuari jakinarazita, eta haren ordezkari ofizialki egiaztatutako beste bat jarri. Aurrekoaren ordezkari instalatutako gailuan erregistratutako kontsumoen bidez likidatuko dira kontsumoak.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak kontagailuak maneiatzeko, zigilua jartzeko eta zigilua kentzeko baimentzen dituen pertsonak Gipuzkoako Industriako Lurralde Bulegoak baimendu behar ditu instalatzaileak izateko, eta instalatzaile iturginaren agiria indarrean daukaten langileak izan behar dituzte.

Kontagailuak aldatzeko prozedurak, arrazoiaren arabera

1. Matxuraren baten ondorioz:

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak hautematen badu kontagailu bat matxuratuta dagoela, haren ordezkari beste bat jarriko da.

2. Aldian aldiko berrikuspenaren ondorioz:

Erregelamendu honen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera ordeztuko dira kontagailuak.

3. Arrazoi teknologikoen ondorioz:

Irtenbide teknologiko berriekin (teleirakurketa sistemak eta abar) zerikusia duten interes publikoko arrazoiak badira ere aldatuko dira kontagailuak.

47. artikulua.- **LEKUZ ALDATZEA**

Kontagailuak edo neurgailuak jartzeko erabiliko den instalazioa instalatzaile baimendu batek jarri behar du, arauz ezarritako baldintzak betetzen dituen leku batean, eta higiezinaren titularraren kargura eta kontura jarriko da.

Kontagailua edo neurgailua dagoen tokian egiten den aldaketa oro, hornitzen den esparruaren edo jabetzaren barruan, aldaketa egitea eskatu duenaren kargurakoa izango da beti. Nolanahi ere, abonatuaren kargurakoa izango da beti, baldin eta kontagailua dagoen tokian aldaketak arrazoi hauengatik egiten badira:

- a) Kontadorea instalatu eta gero abonatuak egindako erreforma obren ondorioz kontadorearen irakurketa, berrikuspena eta hura ordezteko zailtasunak bada.
- b) Kontagailuaren instalazioak betetzen ez baditu Erregelamendu honetan xedatutakoak, eta horniduraren titularrak aldatzen bada.

48. artikulua.- **KONTAGAILUAREN MANIPULAZIOA**

Abonatuak edo erabiltzaileak ezin izango du inoiz kontagailua edo neurgailua manipulatu, ez eta hargunerik eta desbideraketarik egin aparailuaren aurretik, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren berariazko baimenik ez badu.

49. artikulua.- **JAKINARAZPENA ABONATUARI**

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak aldeztu aurretik jakinarazi behar dio abonatuari neurgailuen konexioa eta deskonexioa.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua derrigortuta dago konexioa egin eta abonatuari bidaltzen dion lehendabiziko ordainagirian adieraztera, edo idatziz jakinaraztera, zer neurgailu mota den, zein den fabrikazio zenbakia eta zein den hasierako irakurketa.

50. artikulua.- **EGIAZTAPENAREN ONDORIOZKO LIKIDAZIOA**

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak komeni dela irizten badio edo abonatuak berak egitea eskatzen badu egin daitezke neurgailuen frogak. Froga hori abonatuak eskatuta egiten bada eta hura aztertu ondoren neurgailua ondo dabilela egiaztatzen bada, froga egiteak eragiten dituen gastuak eskatzailearen konturakoak izango dira.

Neurgailua ondo dabilela ulertuko da neurketa erroreak, errorik balego, indarrean dagoen araudiak baimendutako tarteen barruan badaude.

Neurgailua aztertu ondoren egiaztatzen bada gaizki dabilela, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak dagokion likidazioa egingo du.

Azterketa egin ondoren egiaztatzen bada errore positiboa baimendutakoa baino handiagoa dela, itzuli beharreko kopurua zehaztuko da; horretarako, benetan kontsumitutakoa hartuko da kontuan, likidazioa atzeratu behar den hilabete horietan indarrean zeuden tarifen arabera.

Aurreko paragrafoan adierazten den denbora zehazteko, kontagailua instalatu zen egunetik edo kontagailuaren azken egiaztapena egin zen egunetik markaketan errorea egiaztatu zen egunera arte zenbatuko da. Nolanahi ere, denbora hori ez da inoiz sei hiletik gorakoa izango.

Kontagailua emari irregularrekin gaizki dabilela egiaztatzen bada, Udal Zerbitzuak itzuli beharreko zenbatekoaren likidazioa egiteko, aurreko paragrafoan adierazitako denbora bera hartuko da kontuan; denbora horretan, kontagailu berria jarri eta hurrengo laurogeita hamar egunetan egingo litzatekeen kontsumoa kalkulatu da iritzira.

Neurgailua nola dabilen jakiteko egindako azterketetan egiaztatzen bada iruzur egiteko manipulatu egin dela, egiaztatzaileak akta jasoko du, Erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako.

51. artikulua.- **ORDEZTEA**

Kontagailu bat edo neurgailu bat instalaziotik kendu behar bada, konpondu egin behar delako, aldiaren berrikuntza dagokiolako, hartarako arrazoi teknologikoak daudelako edota ondo dabilen aztertu behar delako, eta ezin bada hura berehala jarri, haren ordeztasun beste kontagailu edo neurgailu bat instalatuko da, ondo dabilela egiaztatu ondoren.

52. artikulua.- **GASTUAK**

Oro har, kontagailuak edo neurgailuak egiaztatzeak edo konpontzeak eragiten dituen gastuak tresna horien jabeak ordainduko ditu.

Alde batek eskatuta egin bada egiaztapena, horrek eragiten dituen gastu guztiak eskaera egin duenaren konturakoak izango dira, baldin eta ez bada egiaztatzen tresna gaizki dabilela eta akatsa beste aldearena dela.

VIII. KAPITULUA

UR HORNIDURAREN BALDINTZAK

53. artikulua.- HORNIDURAREN NOLAKOTASUNA

Urari ematen zaion erabileraren arabera, hornidura honako hauetan sailkatuko da:

- a) Etxeko erabilerako kontsumoa.
- Etxeko erabilerako kontsumo bereziak.
 - Etxeko erabilerako kontsumoak bizilagunen komunitateetan, kontagailu orokor batek neurtutakoak.
 - Etxeko erabilerako kontsumoak irakaskuntza arautuko ikastetxeetan, ospitaleetan, hirugarren adinekoentzako egoitzetan, kuarteletan eta bestelako antzeko ostatu kolektiboetan eta ur bero sanitarioa berotzeko zentraletan.
- b) Etxeko erabilerarik ez duen kontsumoa.
- Oro har, jardueretarako erabilerako kontsumoak.
 - Ostalaritza jarduerako erabilerako kontsumoak.
 - Obrak egiteko kontsumoak.
 - Lursail partikularretako ureztatze eta igerileku erabilerako kontsumoak.
 - Udal erakundeen erabilerako kontsumoak.
 - Udalaren autokontsumoa.
 - Suteei aurre egiteko kontsumoak.

Lehen erabilerako lizentzia behar duten eta egoitza erabilera duten etxebizitzetan edo esparru itxietan egiten den kontsumoa hartuko da etxeko erabilerako kontsumo bereizitzat.

Eraikin bat katastroan etxebizitza gisa erregistratuta badago eta hura etxebizitza gisa erabiltzen bada, eta, gainera, familia unitateko kideren batek han jardueraren bat egiten badu, etxebizitzentzat ezarritako tarifa aplikatu zaio.

Eraikin bat katastroan etxebizitza gisa erregistratuta badago eta hura jardueraren bat egiteko soilik erabiltzen bada, jarduera jakin horri dagokion tarifa aplikatuko zaio.

Honako hauek dira etxeko erabilerako kontsumoak bizilagunen komunitateetan, kontagailu orokor batek neurtutakoak: lehen erabilerako lizentzia behar duten eta egoitza erabilera duten etxebizitzetan edo esparru itxietan egiten diren kontsumoak, baldin eta abonatua etxebizitza bat baino gehiagoko lursail baten edo jabekideen erkidego baten jabea bada.

Etxeko erabilerako kontsumoak irakaskuntza arautuko ikastetxeetan, ospitaleetan, hirugarren adinekoentzako egoitzetan, kuarteletan eta bestelako antzeko ostatu kolektiboetan eta ur bero sanitarioa berotzeko zentraletan, erabilera horietarako diren eraikinetan edo lokaletan egindako kontsumoak izango dira.

Jardueretarako erabilerako horniduratzat negozio lokalak edo industriak hornitzeko erabiltzen diren hornidurak hartuko dira, baldin eta ekonomia jardueren gaineko zergan alta ematea beharrezkoa badu jarduerak. Mota horretako horniduratzat hartuko dira, halaber, herri administrazioei eta haien erakundeei egiten zaizkienak, baldin eta duten erabileragatik bestelako erabileretan sartzan ez badira, kontuan hartu gabe jarduerak merkataritza lokaletan edo etxebizitza izateko lokaletan garatzen duten, betiere ordenamenduak baimena ematen

badu kasuan kasuko jardueretarako erabiltzeko. Garaje partikularrei, trastelekuei eta oro har jarduerarik ez duten lokalei egin zaizkien hornidurak ere mota honetakoak izango dira.

Obra egiteko horniduratzat hartuko da obra edo erreforma beharrei aurre egiteko eta, oro har, obra mota orori aurre egiteko diren hornidurak. Hornidura horiek denbora jakin baterako eta modu prekarioan emango dira, herritarren premia orokorren baitan.

Lursail partikularretako ureztatze eta igerileku erabilerako horniduratzat horretarako propio lursail partikular orori ematen zaion hornidura hartuko da, lursail horretan egon edo ez etxebizitza bat, etxebizitza multzo bat, industria, etab.

Aurrekontu autonomoa duten udal erakundeei egiten zaien hornidura hartuko da Udal erakundeen erabilerako horniduratzat.

Autokontsumorako horniduratzat udal eraikinei eta zerbitzuei egiten zaiena hartuko da.

Suteei aurre egiteko horniduratzat horretarako propio kontratatzen direnak hartuko dira.

Adierazitako hornidura mota horietako edozeinetarako egin ahalko dira hornidura bereziak, noizbehinkako edota behin-behineko premiei erantzun behar bazaie.

Hornidura horiek ematea hornikuntza eskatu den tokian Udalak dituen instalazioen aukeren baitan egongo da, bai eta herritarren premia nagusien baitan ere; nolana ere, hornidura modu prekarioan eta denbora jakin baterako emango da.

54. artikulua.- **HORNIDURA BEREIZIAK**

Nolana ere, eraikinetan egon daitezkeen merkataritza edo negozio lokalek hornidura independentea izan behar dute, eta kontagailua eraikineko gainerako kontagailuen batera berean jarri behar da.

55. artikulua.- **SUTEEI AURRE EGITEKO HORNIDURAK**

Eraikinen barruko suteen aurkako instalazioek, edozein dela eraikinen erabilera edo xedea, horretarako propio erabiltzeko ur hornidura izan behar dute; horrez gain, ondorio guztietarako, Erregelamendu honetan ohiko hornidurarako instalazioentzat xedatutako baldintzak bete behar dituzte, honako irizpide hauen arabera:

1. Instalazioak bereizita edukitzea: Suteei aurre egiteko instalazioak eta beste edozein erabileretarako instalazioak erabat bereizita egongo dira, eta haietatik ezingo da beste erabileraren bat izan dezakeen desbideraketarik egin.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren berariazko baimenik gabe debekatuta dago, halaber, ura hartzea instalazio horietako elementu orotik, suteetan izan ezik.

Suteetarako araudi espezifikoak abonatuaren jabetzako barruko instalazioak Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak ziurtatzen duen presioa ez den beste presio bat eskatzen badu, abonatuaren erantzukizuna izango da araudi espezifiko horrek xedatutakoa betetze aldera presioa handitzeko gailuak jartzea eta zaintzea.

Suteei aurre egiteko harguneen bidez kontsumitutako ura fakturatuko da. Eta horretarako, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak homologatutako kontagailu bat instalatu behar da.

2. Hornidura kontratatzea: Suteei aurre egiteko horniduraren hargune bat banaketa sare publikoari lotzeko, aurretik hornidura kontratua sinatu behar da.

Kontratu horiek izapidetzeko modua eta ohiko hornidurak izapidetzekoa berbera da, eta, hortaz, arauz ezarritako baldintza berberak bete behar dituzte.

IX. KAPITULUA

HORNIDURA EMATEA ETA KONTRATATZEA

56. artikulua. **HORNIDURA ESKAERA ETA KONTRATUA UKATZEKO ARRAZOIAK**

Zerbitzua erabili aurretik, interesdunak alta eskatu behar du zerbitzuan, Erregelamendu honetako 7. artikuluan xedatutako moduan.

Interesduna ez da zerbitzuaren erabiltzailea izango, Erregelamendu honetan xedatutako baldintza ekonomiko, tekniko eta administratiboak ordaintzen edo betetzen dituen arte.

Udalak du ur hornidura emateko eskumena, indarrean dauden erregelamenduzko arauak beteta.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak kasu hauetan uka dezake hornidura kontratua:

1. Hornidura eskatu duen pertsonak edo erakundeak ez baditu onartzen ur horniduraren kontratazioari buruz indarrean dauden arauak, edo aurkezten ez badu arauz eskatzen den dokumentazioa edo erdaintzen ez baditu dagozkion zenbatekoak.
2. Eskatzailearen instalazioan betetzen ez badira, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren iritziz eta behin egiaztatu ondoren, indarrean dagoen araudiak orokorrean xedatzen dituen arauak. Halakorik gertatuz gero, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak eskatzaileari jakinaraziko dio zer akats aurkitu dituen, haiek konpon ditzan.
3. Ur hornidurarako hargunea ez badu, edo hondakin urak eta euri urak husteko baimenik ez badu.
4. Hornidura eskatu duen pertsonak, aurrez, ur horniduraren zenbatekoa ordaintzeari utzi diola egiaztatzen bada.
5. Hornitu beharreko lokalak aurretik beste hornidura kontratu bat badu eta hura indarrean badago.
6. Hornidura eskatu duen pertsonak dagozkion baimenak (hirugarren pertsonenak) lortu dituela agiri fede emaile bidez egiaztatzen ez baditu, edo kasua balitz, eskatutako zerbitzuak emateko obrak eta instalazioak egiteko beharrezkoak diren zortasunak, erregistroan inskribatuta, zehazten ez baditu.

57. artikulua.- **FIDANTZAK**

Abonatutako pertsonak izan dezakeen edozein zorri erantzuteko, fidantza bat jarri behar du nahitaez Udaleko Diruzaintza atalean.

58. artikulua.- **SINATU BEHARREKO KONTRATUAK**

Kontratuak hornidura mota bakoitzaren arabera egingo dira, eta, hortaz, tarifa edo baldintza desberdinak aplikatzea beharrezkoa baldin bada, derrigorrean sinatu behar da

kontratua.

59 artikulua. – **KONTRATUAREN XEDEA ETA IRISMENA**

Hornidura kontratua unitate independente edo bereizi bat eratzen duen etxebizitza, etxe, lokal, industria edo obra bakoitzeko sinatuko da; beraz, haien jabetzan titulartasuna aldatzen bada, beste hornidura kontratu bat egin behar da.

Hornidura bakoitza horniketa eman zaion xederako izango da; horrenbestez, debekatuta dago bestelako xedeetarako erabiltzea edo haren irismena aldatzea, eta halakorik eginez gero, beste eskaera bat egin beharko da eta dagokion kontratua sinatu.

60. artikulua.- **KONTRATUAREN IRAUPENA**

Kontratuaren iraupena mugagabea izango da, bestelako eperen bat finkatzeko berariazko akordiorik izan ezean.

Obretarako hornidurak, lokal eramangarrietan egiten diren aldi baterako ikuskizunetarako hornidurak, eta, oro har, aldian aldiko jardueretarako hornidurak beti denbora jakin baterako egingo dira.

61. artikulua.- **HORNIDURA ETETEKO ARRAZOIAK**

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak, indarrean dagoen legediaren babesean gauzatu ditzakeen ekintza zibil edo administratiboek gain, abonatuak hornidura eten ahal izango die kasu hauetan:

- a) Erabiltzaileak Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak fakturak ordaintzeko adierazi dion epean ordaintzen ez baditu fakturak.
- b) Hornidura baldin badu bere izenean kontraturik izan gabe eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak eskatuta ere sinatzeari uko egiten badio.
- c) Iruzur egin osteko behin betiko likidazioaren zenbatekoak edo iruzurra behin baino gehiagotan egin duela egiaztatzearen ondoriozko zenbatekoak hamabost egun balioduneko epean ordaintzen ez baditu, jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.
- d) Hornidura kontratuan adierazitako erabilera ez den beste erabilerako baterako erabiltzen badu ura abonatuak beti etengo zaio hornidura.
- e) Hornidura kontratuan adierazita ez dauden beste lursail, lokal edo etxebizitza batzuk urez hornitzeko abonatuak bere instalazioan desbideraketak egiten baditu edo egiten uzten badu.
- f) Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuko langileek hornidura sareetan kontraturik gabeko ur kontsumoak, hau da ezkutukoak, hautematen baditu. Halakoetan, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak berehala eten dezake ur hornidura hargune horietan.
- g) Abonatuak ez badie sartzten uzten kontratu bidez hornitzen den lokalean, laneko orduetan edo jendearekiko harremanetarako ordutegian, erakundeak baimendutako eta dagokien

akreditazioa ikusgai duten langileei, instalazioak azter ditzaten. Halakoetan, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak gertatutakoaren akta jaso behar du.

h) Abonatuak ez badu kontratua betetzen, edozein dela gaia, edo ez baditu zerbitzua erabiltzeko baldintza orokorrak betetzen.

i) Ura erabiltzeko modua dela-eta edo barruko instalazioek duten egoera dela-eta banaketa sareko uraren edangarritasunean kalteak eragin badaitezke, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak hornidura berehala eten ahal izango du, egoera horiek eragozteko abonatuak neurri egokiak hartzen ez dituen arte.

j) Abonatuak uko egiten badio kontagailuaren erregistroa edo kutxatila aldatzeari, edota barruko instalazioa aldatzeari, baldin eta hala egitea beharrezkoa bada, Erregelamendu honetan baimendutako arrazoiak direla-eta kontagailu zaharra kendu eta beste bat jartzeko.

k) Abonatuak ura beste jatorri bateko urarekin nahasi eta Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak arazo hori konpontzeko eskatzen badio eta bost eguneko epean agindutakoa betetzen ez badu.

l) Abonatuari egotzi dakioken arrazoi batengatik hamabi hileko epean irakurketa egitea ezinezkoa bada horretarako propio ezarritako prozedura arruntari jarraituz, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak hornidura aldi baterako eten ahal izango du, abonatuak, bere kargura eta kontura, irakurketa egiteko sarbiderako oztupoak kentzeko instalazioan aldaketak egiten dituen arte.

m) Abonatuaren utzikeria hautematen bada; hau da, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak idatziz jakinarazten badio abonatuari bere instalazioetan dagoen matxura konpontzeko eta zazpi egunen buruan matxura ez bada konpondu.

62. artikulua.- **HORNIDURA ETETEKO PROZEDURA**

Erregelamendu honetan xedatutako berehalako etenaldien kasuetan izan ezik, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak erabakiaren jakinarazpena igorriko dio abonatuari. Jakinarazpena igorri eta hamar egun baliodunen buruan arazoa ez bada konpondu, hornidura eten egingo da.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak ezin izango du hornidura eten, berehala eten dezakeen kasuetan izan ezik, jaiegunetan edo, edozein arrazoi tarteko, jendearen harrerarako zerbitzu administratiborik eta teknikorik ez dagoen egunetan (zerbitzua berrezartzeko izapide guztiak egin ahal izateko), ez eta antzeko egoerak gerta daitezkeen egunen bezperetan ere.

Zerbitzua egun berean berrezarriko da, edo ezin bada, hornidura etetea eragin zuten arrazoei irtenbidea eman eta hurrengo egunean.

Hornidura eten egingo delako jakinarazpenean, gutxienez, honako hauek adierazi behar dira:

- Abonatuaren izen-abizenak eta helbidea.
- Hornitutako lursailaren identifikazioa.
- Hornidura etetea eragin duen arrazoiaren xehetasunak.
- Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren helbidea, telefono zenbakia eta bulegoen ordutegia, hornidura etetea eragin duten arrazoei irtenbidea eman ahal izateko.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak konektatuko du berriro hornidura, eta konexioa berriro egiteagatik kobratu ahalko dio abonatuari; hain zuzen ere, berriro konektatutakoan, instalatutako kalibre bererako indarrean dagoen kontratazio kuotari dagokion gehieneko zenbatekoa.

Ez ordaintzeagatik eten bazaio hornidura, eta hiru hileko epean, hornidura eten zen egunetik zenbatzen hasita, abonatuak ez baditu ordaintzen ordaindu gabeko ordainagiriak, hornidura behin betiko etendakotzat emango da, eta Udalak eskubidea izango du zorra eta eragindako kalteak eta galerak ordain diezazkioten eskatzeko.

63. artikulua.- **KONTRATUAREN IRAUNGIPENA**

Ur hornidurarako kontratua, Erregelamendu honetako 62. artikuluan zehaztutako arrazoiengatik hornidura eteteko bideak gauzatu ahal izateaz gain, honako arrazoi hauengatik iraungi daiteke:

1. Abonatuak eskatzen duelako, eraikinaren jabetzaren titularra izateari utzi eta agiri fede emaille bidez jakinarazten badu.
2. Entitate hornitzaileak hala erabaki duelako, kasu hauetan:
 - a) Erregelamendu honetako 61. artikuluan hornidura eteteko araututako arrazoiren batek hiru hileko epetik gora irauten badu.
 - b) Hornidura kontratuan ezarritako baldintzak eta epea bete badira.
 - c) Hornidura kontratua sinatu zenean zeuden zerbitzuen eta instalazioen erabilera aldatzen bada, bai eta hornitzen zen lursaila handitu, erreformatu edo eraitsi bada ere.

Adierazitako arrazoi horietakoren batengatik kontratua iraungi ostean zerbitzua berriro ere abian jartzeko, derrigorrean egin behar da beste eskaera bat eta dagozkion zergak ordaindu.

X. KAPITULUA

ERREGULARTASUNA HORNIDURAN

64. artikulua.- **ZERBITZU ETENGABEA**

Ezinbesteko arrazoiak tarteko eta instalazio publikoetan gerta daitezkeen matxurak salbu, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzua behartuta dago zerbitzua etenik gabe ematera, baldin eta hornidura kontratuan aurkakoa ez bada jaso.

65. artikulua.- **DENBORA JAKIN BATEKO ETENALDIAK**

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak aldi jakin batez eten ahal izango du zerbitzua, ezinbestekoa baldin bada bere kargurako instalazioetan mantentze lanak, konponketak edo hobekuntzak egiteko.

Aurreikusitako eta programatutako etenaldietan, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak gutxienez hemezortzi ordu lehenago jakinarazi behar die erabiltzaileei, kasuan kasuko udalerrian hedapen handien duen komunikabide baten bidez gutxienez. Komunikabideen bidez ezin badu jakinarazi, behar beste denbora lehenago eman behar du jakitera eskura dituen beste bitarteko batzuen bidez, hornidura eten egingo delako informazioa erabiltzaileei helaraziko zaiela ziurtatze aldera.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuaren kargurako instalazioetan matxurak daudelako eten bada hornidura (eta ez ezinbesteko arrazoiengatik), eta bederatzi egun baino gehiago irauten badu etenaldiak, abonatuak eskubidea izango du kuota finkoaren edo zerbitzuko kuotaren zati proportzionala itzul diezaioten eskatzeko (Erregelamendu honetako 90. artikulua).

66. artikulua.- **UR ERRESERBAK**

Sektore bakoitzak berariaz xedatzen dituen arauak ere kontuan hartuta, ura osasun publikorako edo pertsonen zein ondasunen segurtasunerako ezinbestez eta etengabe beharrezkoa den jardueraren bat gauzatzen duten lokaletan, eta, bereziki, ospitaleetan, produktu sukoiaren eta erregaien biltegietan eta merkataritzagune handietan, ur erreserbako deposituak jarri behar dituzte; jarduera bakoitzak oinarrizko premiei gutxienez hogeita lau orduz aurre egiteko adinako ur kantitatea izan behar dute ur deposituek.

Produktzio prozesuan edo produktuak kontserbatzeko ura ezinbesteko elementua den industrietan ere erreserba handitu eta zehaztu behar dute, ura gutxienez hogeita lau orduz izango dutela ziurtatzeko.

67. artikulua.- **MURRIZKETAK HORNIDURAN**

Lehorteak izan badira, ur emariak urriak badira edo ura tratatzeko arazoak direla-eta komeni dela ikusiz gero, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak abonatuak ur horniduran murrizketak egitea erabaki dezake.

Halakorik egin behar izanez gero, Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak derrigorrez informatu behar ditu abonatuak, ahalik eta modurik argienean; hain zuzen, komunikabideen bidez

jakinarazi behar die zer neurri hartuko dituen eta zer egunetan jarriko dituen abian neurri horiek. Ezin bada komunikabideen bidez jakinarazi, abonatu bakoitzari gutun bat igorri behar dio neurriez informatzeko.

Erabiltzaileen beharrei aurre egiteko ur emari nahikorik ez dagoelako eten bada ur hornidura, kontratatutako erabilera modalitatea hartuko da kontuan ur hornidura murrizteko, eta murriztu aurretik lehentasun ordena honi jarraituko zaio:

1. Modu prekarioan egindako hornidura.
2. Nekazaritzarako erabiltzen den hornidura.
3. Apaingarrietarako erabiltzen den hornidura.
4. Dibertimenduzko erabileretarako eta kirol instalazioetarako hornidura.
5. Industria, merkataritza eta zerbitzuetako erabilerarako hornidurak.
6. Etxeko erabilerarako hornidura.

XI. KAPITULUA

IRAKURKETAK, KONTSUMOAK ETA FAKTURAZIOAK

68. artikulua.- **IRAKURKETAREN MAIZTASUNA**

Udala behartuta dago irakurketak egiteko sistema iraunkorra eta aldizkakoa ezartzera, helburu izanik abonatu bakoitzaren kontagailuaren irakurketa, ahal den neurrian, ziklo berdinetan egitea.

69. artikulua.- **IRAKURKETARAKO ORDUTEGIA**

Irakurketak, teleirakurketa sistema duten instalazioetan ez besteetan, lanegunetan eta laneko edo jendearekiko harremanetarako ordutegian egingo dituzte Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak horretarako propio baimendutako langileek, nor bere identifikazio txartela soinean daramala.

Abonatuak ezin izango du inola ere behartu ordutegi horretatik kanpo egitea irakurketa; hau da, abonatuak ezin izango du Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak irakurketa egiteko ezarritako ordutegitik kanpo irakur dezaten eskatu.

Behin behineko hornidura baimena eman bada eta hornidura hori neurgailu eramangarrien bidez kontrolatzen bada, abonatuak kasuan kasuko kontratuan edo baimenean adierazten diren toki edo lokaletan eta egunetan aurkeztu behar ditu neurgailu eramangarri horiek, irakurketa egin dezaten.

70. artikulua.- **ABONATUAK IRAKURKETA EGITEA**

Abonatuak ez dagoelako ezin izan bada irakurketa egin, irakurketa egin behar zuen langileak txartel bat helaraziko dio abonatuari, haren etxebizitzako ate azpitik sartuta edo postontzian utzita; txartel horretan honako datu hauek adierazi behar dira:

- a) Horniduraren erreferentzia eta helbidea.
- b) Zer egunetan bertaratu zen irakurketa egitera.
- c) Irakurketaren datuak emateko gehieneko epea.
- d) Kontagailuaren irakurketa adierazteko zurigunea.
- e) Zer modu dauden kontagailuen irakurketako datuak Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari helarazteko.
- f) Ohartarazpena, adierazteko Udalak kontsumoaren estimazio bat egin ahal izango duela, kontsumoak ez pilatzeko, irakurketaren datuak adierazitako epean jasotzen ez baditu.

Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuak txarteleko a), b), c), e) eta f) letrak bete beharko ditu, eta abonatuak d) letra.

71. artikulua.- **KONTSUMOAK ZEHAZTEA**

Oro har, abonatu bakoitzaren kontsumoa zehazteko, segidan fakturatutako bi epeetako irakurketen arteko aldea hartuko da kontuan.

72 artikulua.- **IRITZIRA KALKULATUTAKO KONTSUMOAK**

Benetan zenbat kontsumitu den jakitea ezinezkoa bada, neurgailuan matxuraren bat dagoelako, irakurketa egin nahi zen unean abonatua ez zegoelako edo Ura eta Saneamendua Udal Zerbitzuari egotz dakizkioken bestelako arrazoiengatik, aurreko urteko denbora epe berean eta urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera egingo da kontsumoaren fakturazioa; hala ere, neurketa horiek eskura izango ez balira, aurreko sei hilabeteetan izandako kontsumoaren batezbesteko aritmetikoaren arabera likidatuko dira fakturak.

Aurreko paragrafoan adierazitako batezbestekoa lortzeko nahikoa datu ez badaude, aurreko aldietan erregistratutako kontsumoen arabera lortutako batezbestekoa oinarri hartuta zehaztuko dira kontsumoak. Horrela kalkulatzeko ere ezinezkoa bada, kontagailuaren emari nominalari dagokion kontsumoa fakturatuko da (hamar orduko erabilera hilean).

Kontagailuak orokorrak baldin badira, kontagailu orokorrak bere baitan hartzen dituen etxebizitza kopuruaren arabera –gutxienezkoa– kalkulatu da iritzira, eta etxebizitzaren kalibre ohikoa hartuko da erreferentzia gisa.

Iritzira kalkulatuak kontsumoak behin betikoak izango dira, halaber, kontagailua matxuratuta badago. Gainerako balizko egoerei dagokienez, berriz, benetako irakurketa egin ondoren egoera normalizatu egingo da, goitik edo behetik, eta ondorengo aldi bakoitzean egiten den irakurketaren arabera zehaztuko dira kontsumoak.

Abonatuak bere neurgailuaren datuak Udalarari helarazten dionean eta Udalak ikusten badu datu horiek (kontsumoari buruzkoak) ez datozela bat abonatuak kontsumitu ohi duenarekin, kontsumo horiek iritzira kalkulatu ahalko dira.

Aurreko paragrafoan adierazitako kasuetan, kasuan kasuko epeari dagokion fakturazioa egiteko, Udalak erabaki dezake kontsumoa iritzira kalkulatzeko edo hurrengo aldira atzeratzea, bi aldi horietako kontsumoak azken aldi horretan zenbatuta.

73. artikulua. – **FAKTURAZIOAREN XEDEA ETA MAIZTASUNA**

Udalak XIII. kapituluaren adierazitako eta kasu bakoitzari dagozkion kontzeptuak fakturatuko ditu, hornidura motaren eta unean-unean indarrean dauden tarifen arabera.

Kontsumoak hornidura epeak amaitutakoan fakturatuko dira, eta epe horiek gehienez ere hiru hilekoak izango dira. Lehenengo aldia instalazioa abian jartzen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

74. artikulua.- **FAKTUREN ETA ORDAINAGIRIEN BALDINTZAK**

Hornidura eta saneamendu zerbitzuak jasotzearen ondorioz abonatuak ordaindu beharreko

zenbatekoak jasotzen dituzten ordainagiriekin indarrean dagoen legediak unean-unean xedatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte, eta, horrez gain, haietan modu argi eta ulergarrian adierazi behar dira prezioak eta kontsumoak eta erabiltzailearentzako interesekoak diren gainerako datuak.

75. artikulua.- **ORDAINAGIRIETAKO INFORMAZIOA**

Fakturazioaren kontzeptuetan edo fakturatzeko moduetan aldaketa nabariak gertatzen badira, Udalak tarifak aplikatzeko moduari buruzko informazioa helaraziko die abonatuari, eta, horrez gain, fakturaturako kontzeptuak zer xedapenetan dauden jasota jakinaraziko die.

76. artikulua.- **HAINBANAKETA**

Zerga kuota bat baino gehiago ezarri diren fakturazio aldietan, likidazioa hainbanaketaren bidez egingo da.

77. artikulua.- **ORDAINKETA EPEA**

Udalak ordainagiriaren zenbatekoa ordaintzeko zer epe daukaten jakinarazi behar die abonatuari; nolana ere, ordaintzeko epea gutxienez hamabost egun naturalekoa izango da.

Banakako kobrantzako abisuen bidez, edo kasuan kasuko udalerrian hedapen handien duen komunikabidean publizitate orokorra jarritz, edota indarrean dagoen legediak onartzen duen jakinarazpen prozedura orean bidez jakinarazi ahal izango die abonatuari ordaintzeko zer epe dauden.

Ordainketa bankuren batean helbideratuta badago, ez da derrigorrezkoa informazio hori helaraztea.

78. artikulua.- **FAKTURAK EDO ORDAINAGIRIAK ORDAINTZEKO MODUA**

Zerga ordenantzak xedaturako prozeduren bidez ordaindu ahal izango ditu abonatuak Udalak fakturaturako zenbatekoak.

Beste erakunde batzuei emandako hornidura eta saneamendu zerbitzuak fakturatzeko eta kobratzeko moduari dagokionez, Udalak berak arautu ahal izango du, kasuz kasu, modu berezian.

79. artikulua.- **FAKTURAZIOKO AKATSEN ZUZENKETA**

Hutsegite baten ondorioz Udalak behar baino kopuru txikiagoa fakturatzeko badu, aldea zatika ordaindu ahal izango da; nolana ere, zatika ordaintzeko epea, bestelakorik ez bada erabakitzen, okerreko fakturak aurkeztu diren denbora berean luzatu ahal izango da, eta gehienez ere bi urtekoa izango da epe hori.

80. artikulua.- **ALDEZ AURRETIK ERABAKITAKO KONTSUMOAK**

Bolumen edo emari finkoko hornidura edo denbora jakin batez erabiltzeko kopuru zehatz bat kontratatuta duten instalazioetan –izan aldi baterako kontratua, izan modu prekarioan emandako hornidura kontratua, edo izan beste egoera bereziren baten ondorioz kontratatukoa–, ezin izango da hitzartutako kontsumoak ez diren bestelako kontsumoak zenbatu.

Halako hornidura kontratua sinatu duen pertsonak, halaber, ezingo du inolako arrazoirik eman edo baldintzarik argudiatu, hitzartutako kontsumoetan edo kopuruetan murrizketarik egiteko.

Aldez aurretik erabakitako kontsumoetan, fakturazioa aldez aurretik egin ahal izango da, edo zerbitzua ematen hastean.

XII. KAPITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

81. artikulua.- **DEFINIZIOA**

Erregelamendu honetako arauak urratzen dituen ekintza eta ez-egite oro hartuko da erabiltzailearen arau haustetzat.

82. artikulua.- **SAILKAPENA**

Arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, jarraian zehaztutakoaren arabera.

ARAU HAUSTE ARINAK

Honako hauek dira arau hauste arinak:

- a. Horniduraren erabiltzaile guztiek ura eskuragarriago izan dezaten lortze aldera, ur kontsumoa norberaren berariazko premietara mugatzeko betebeharra ez betetzea.
- b.- Matxuraren bat hautemanaz gero haren berri Udalarari emateko betebeharra ez betetzea, batez ere matxura horren ondorioz jario bat izan bada, edateko ura alferrik galdu bada, hondakin-urak aldegin badu edo saneamendu sarean buxadura gertatu bada.
- c. Edozein egoera dela eta, kontsumoaren edota isurketen ohiko emaria edota haien ezaugarriak nabarmen aldatzen badira, Udalarari horren berri emateko betebeharra ez betetzea; kontsumituko den uraren erabilera aldatu dela jakinarazteko betebeharra ez betetzea ere arau hauste arina da, baldin eta horrek tarifa aldatzea edo, oro har, kontratuaren edo zerbitzuaren baldintzak aldatzea badakar.
- d. Kontratutako ur hornidura beste xede batzuetarako erabiltzea edo kontratatutako isurketa baldintzak aldatzea.
- e. Horiez gain, arau hauste arintzat hartuko dira Erregelamendu honetako arauak urratzen dituzten eta larritzat edo oso larritzat hartzen ez diren ekintza eta ez-egite guztiak.

ARAU HAUSTE LARRIAK

Honako hauek dira arau hauste larriak:

- a. Isurketak indarrean dagoen legedian eta Udalak onartzen dituen arauetan adierazitako mugen eta baldintzen barruan egiteko betebeharra ez betetzea.
- b. Eraikinaren barruko instalazioa ahalik eta ardura handienarekin erabiltzeko, zaintzeko eta kontserbatzeko betebeharra ez betetzea.
- c. Udaletxeko langileei eta Udaletxekoak ez izan arren kasuan kasuko identifikazio txartelaren bidez baimentzen dituen langileei beren lanak egiten errazteko, eta hornidurarekin eta saneamenduaren zerikusia duten ikuskaritza lanak egin ditzaten, eta neurgailuz aldatzeko edo irakurketa egiteko lursailean, etxebizitzan, lokalean edo esparru itxian sartzen uzteko betebeharra ez betetzea.
- d. Udalarari datuak, zerbitzuei buruzkoak nahiz horiekin zerikusia dutenak eskatutakoak, ahalik eta zehaztasun handienaz emateko betebeharra ez betetzea.
- e. Ura iristeko hodian edo hustutzekoetan ponpak edo hornidura edota saneamendu sarearen egoeran eta, ondorioz, gainerako erabiltzaileei emandako zerbitzuan aldaketa dakarren edo eragina izan dezakeen beste edozein gailu edo elementu zuzenean txertatzea edo, oro har, alde zuzeneko baimenik gabe erabiltzea.
- f. Dohainik lagatzea edo berriro saltzea Udalak hornitutako ura edo hustuketa ahalmena.
- g. Neurgailurik ez edukitzea, edo neurgailurako sarbideak edo kokapena aldatzea, Udalaren baimenik gabe.

h. Udalaren sareetako edo instalazioetako elementuak, eta ura kargatzeko edo erabiltzeko elementu oro manipulatzeko edo haietan kalteak eragitea, bai eta neurgailuak manipulatzeko ere nahiz eta erabiltzailearen jabetzakoak izan; suteei aurre egiteko eraikinen barruko instalazioak manipulatzeko ere arau hauste larritzat hartzen da.

i. Isurkiak ez lotzea araudi erregulatuak edo Erregelamendu honek xedatutakoari jarraituz dagokion hustuketa hodiari.

j. Hornidura sareko elementuetatik ura modu irregularrean eta baimenik gabe hartzea.

k. Erregelamendu honen xedeko gaien gainean Udalak egindako eskakizunak ez betetzea.

l. Urtebeteko epean hiru arau hauste arin egitea arau hauste larritzat hartuko da.

OSO ARAU HAUSTE LARRIAK

Honako hauek dira oso arau hauste larriak:

a. Aurreko artikuluan larritzat hartutako arau hausteak, baldin eta isuritako kantitatearen edo isuritakoaren kalitatearen ondorioz kalte larria eragiten bada pertsonen osasunean, natura baliabideetan, ingurumenean, hondakin uren kolektoreetako efluentearen ohiko zirkulazioan, hoditeriaren egoeran edo hondakin uren araztegiaren funtzionamenduan.

b. Egoera arriskutsuen edo larrien berri ez ematea, edo egoera horietarako Administrazioak emandako arauak ez betetzea.

c. Isurketak ez egiteko aginduak ez betetzea.

d. Udalaren berariazko baimenik gabe ura hartzea, hornidura sarean kutsadura eragin dezaketen prozeduren bidez.

e. Udalaren hornidura sareari beste jatorri bateko ura hornitzeko hargunea txertatzea, nahiz eta ur hori edangarria izan.

f. Erregelamendu honen xedeko gaien gainean Udalak egindako eskakizunak ez betetzea, horren ondorioz kalte larria eragiten bada ingurumenean, udalaren zerbitzuetan eta hirugarren pertsonengan.

g. Urtebeteko epean hiru arau hauste larri egitea oso arau hauste larritzat hartuko da.

83. artikulua.- ZEHAPENEN ZENBATEKOA

Hauek dira adierazitako arau hausteei aplikatzekoak diren zehapenak:

-Gehienez ere 750 euro, arau hauste arina bada.

-751 eurotik 1.500 eurora bitartean, arau hauste larria bada.

-1.501 eurotik 3.000 eurora bitartean, oso arau hauste larria bada.

84. artikulua.- ZEHAPENEN MAILAKATZEA

1. Zehapenak aplikatzean kontuan hartuko da asmoa edo intentzionalitatea izan den tarteko edo behin baino gehiagotan egin den, eragindako kalteen nolakotasuna eta mota bereko arau hauste bat, ebazpen irmo bidez halakotzat hartuta ere, urtebeteko epean behin baino gehiagotan egin den.

2. Behin-behineko neurri gisa hornidura eten ahal izango da, 61. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoa betez.

85. artikulua.- IRUZURRAGATIKO KOMPENTSAZIOA

Iruzur egindakotzat hartuko dira honako kasu hauek:

1. Instalazioak manipulatzeko ondoriozko iruzurra bada, edozein dela manipulazioa, zerbitzuak eten egingo dira instalazioak lehen zeuden bezala uzten diren arte eta iruzurgileak eragindako gastuak ordaintzen dituen arte.

2. Erabiltzaileak etekin ekonomikoak lortzen baditu, 83. artikuluan adierazitako zehapenez gain, egindako iruzurrari dagokion likidazioa egingo da.

Honela kalkulatu da iruzurraren zenbatekoa:

1. Iruzuraren ezaugarriak direla-eta ezinezkoa bada zehatz-mehatz jakitea zenbateko ur bolumen kontsumitu den, aurreko paragrafoan adierazitako likidazioa egiteko, dagokion epean hargunetik barrena igaro daitekeen gehieneko ura hartuko da kontuan; hau da:

- hiru orduko kontsumoa eguneko, etxe erabilerakoa, eta merkataritzako eta lanbideko erabilerakoa bada (bulego profesionaletarako erabiltzen diren higiezinak, jarduera sozialetarako erabiltzen diren higiezinak, erabilera pertsonaleko lokalak eta ostalaritzakoa ez den merkataritzako erabilerako higiezin txikiak), baldin eta higiezin horren baldintzak (m², jarduera, erabiltzaileak...) aurrekoen antzekoak badira.
- zortzi orduko kontsumoa eguneko, gainerako erabilera guztietan.

2. Iruzurra zenbateko denbora epean egin den zehatz-mehatz jakitea ezinezkoa bada, kasuz kasu jasotako zantzuak hartuko dira kontuan eta denbora eskala hau aplikatuko da likidazioan:

- Zantzuen arabera, iruzur egoerak hamabost egun baino gutxiago iraun duela uste bada, hamar egun.
- Hilabete inguru iraun duela uste bada, hogeita bost egun.
- Hilabete eta hiru hil bitartean iraun duela uste bada, hirurogei egun.
- Hiru eta sei hil bitartean iraun duela uste bada, ehun eta berrogeita hamar egun.
- Sei eta bederatzita hil bitartean iraun duela uste bada, berrehun eta berrogei egun.
- Bederatzita hil baino gehiago iraun duela uste bada, hirurehun eta hirurogeita bost egun.

86 artikulua.- **ALDATUTAKO ERREALITATE FISIKOA LEHENERATZEA**

1. Zehapenaz gain, eragindako kaltea konpontzeko eta iruzurraren zenbatekoa itzultzeko betebeharra izango du iruzurgileak, eta hutsegiteen ondoriozko erantzukizuna ere izango du. Eragindako kaltea konpontzeari dagokionez, hornidura edota saneamendu sareen instalazioak eta elementuak fisikoki jatorrian zeuden bezala uzteko beharrezko jarduerak egingo beharko dira; horretarako, jarduerak noiz hasi eta noiz amaitu adieraziko da.

2. Adierazitako epe horietako edozein betetzen ez bada edo lanak hasi baina bertan behera uzten badira, Udalak subsidiarioki gauzatuko ditu iruzurgilearen kontura.

3. Udalak, gainera, erantzukizuna duen subjektuari fidantza bat aurkezteko eskatu ahalko dio, neurriak gauzatuko direla ziurtatzeko.

87. artikulua.- **ZEHAPENAK EZARTZEA**

Erregelamendu honetan aurreikusitako arau hausteei dagozkien zehapenak Udalaren organo batek jarriko ditu, hain zuzen, toki araubideak xedatutakoaren arabera kasuz kasu eskumena duen organoak.

88. artikulua.- **ZEHAPEN PROZEDURA**

Erregelamendu honetan tipifikatutako arau hausteengatik zehapenak jartzeko prozedura izapidetzeko Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa eta abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren bidez zehapen ahalmena erabiltzeko prozedura onesten duen erregelamendua hartuko dira kontuan, edo haien ordezko araudietan xedatutakoa, hala gertatuz gero.

XIII. KAPITULUA

TARIFAK EZARTZEKO SISTEMA

89. artikulua.- BALDINTZA OROKORRAK

Erregelamendu honetan hau hartuko da tarifa sistematzat: abonatuak ordaindu beharreko prezioa osatzen duten kontzeptuen multzoa, Udalak zerbitzuak eskaintzeko oreka ekonomikoa eta finantzarioa lortzeko eta hari eusteko.

90 artikulua.- KUOTA FINKOA EDO ZERBITZUAREN KUOTA

Erabiltzaileek erabilgarritasunagatik aldian-aldian ordaindu behar duten zenbateko finkoa da, zerbitzua erabili edo ez erabil.

91. artikulua.- KUOTA ALDAKORRA EDO KONTSUMOAREN ARABERAKOA

Abonatuak aldian-aldian eta kontsumitutakoaren arabera ordaintzen duen zenbatekoa da. Kuota honen zenbatekoa zehazteko, tarifa konstante bat aplikatzen da. Ur erabilera bakarrerako, kontsumo oro prezio berean fakturatzen da.

92. artikulua.- SANEAMENDUA

Saneamendu kuota kasuan kasuko epean fakturatutako uraren zenbatekoaren arabera fakturatzen da. Eta fakturatutako ura, hain zuzen, hau da: kuota finkoaren zenbatekoa gehi kasuan kasuko kuota aldakorraren zenbatekoa.

93. artikulua.- HARGUNE ESKUBIDEAK

Hornidura edo saneamendu harguneen eskubideak Erregelamendu honetako 33. artikuluan xedatutakoarekin bat exijituko dira.

94. artikulua.- ZERGAK

Fakturatutako kontzeptuei unean-unean aplikatzekoak diren zergak jasoko dira fakturetan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA. INSTALAZIOAK EGOKITZEA.

1. Erabiltzaileek Erregelamendu honetan ezarritako baldintza edo betekizunen bat betetzen ez badute eta Udalarekin ur hornidurako eta saneamenduko kontratu bat sinatuta edo zerbitzu bat abian badute hura indarrean sartzen denean, egoera horri denbora mugagabe eutsi ahalko diote, adierazten duten arte instalazioa aldatu nahi dutela (halakoetan, Erregelamendu honetan xedatutakora egokitu beharko dira) edo gaizki dabiltzala hauteman arte.

2. Higiezin edo lokal baten barruko instalazioak aldatu behar badira, zaharrituta daudelako, araudi orokorrera egokitu behar direlako edota hornidura eta saneamendu zerbitzuen erabilera aldatu behar delako, instalazio horiek Erregelamendu honetan xedatutakora eta aplikatzekoak diren gainerako arauetara egokitu beharko dira.

3. Erregelamendu hau indarrean sartzen denean, kontagailu bakar baten bidez erabilera bat baino gehiago hornitzen badira, barruko instalazioa aldatu beharko dute, erabilera bakoitza kontagailu baten bidez hornitzeko bi urteko epean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Erregelamendu hau indarrean jartzen denetik, indargabetu egingo dira eta inolako baliorik eta eraginik gabe geratuko dira ezarrita dauden eta haren aurkakoak diren maila bereko edo txikiagoko xedapen, erregelamendu eta ordenantza guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau behin betiko onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.